

Eraikuntza

Gehigarri berezia → 25-48

LESAKA → 14

Independentzia Eguna azaroaren 15ean

MALERREKA → 22

Euskararen erabilera bultzatzeko tailerrak

LEITZALDEA → 53

Guraso berrientzako gida argitaratu dute

SENPERE → 61

Karrika Nagusiko saihesbidea ireki dute

2015eko Nafarroa Oinez urriaren 18an Elizondon

Hama...Bortz, Ama...Bat lelopean Baztan Ikastolak antolatuko du 2015eko Nafarroa Oinez. Baztan Ikastolak eskuararen besta hau antolatuko duen bigarren aldia izanen da, 1982an egin baitzuen lehenbiziko aldiz. Nafarroa Oinez ikastolako azpiegiturak mantendu eta hobetzeko baliaitu nahi dute, baina baita eskuarari bulkaldia emateko ere. Leloa Fernando Anbustegik sortu du eta logoa Josune Iturzaetak, Pello San Millanek eta Juan Angel Perotxenak egin dute, elkarlanean.

→ 55



Uraren erabilera zaintzearen garrantzia

Ausarki eta eskas aldi berean



Uraren eta ibaien kudeaketa hobetzeko helburuarekin, Guratrans proiektua lantzen ari dira eskualdean. Europa mailako egitasmoa da, baina funtsean Nafarroa, Gipuzkoa eta Lapurdik partekatzen dituzten bortz ibai ditu oinarri: Bidasoa, Urdazuri, Urumea, Araxes eta Leitzarain.

ERREPORTAJEA → 4-5

ARGAZKIA: JOSETXO APEZTEGIA

Julen APEZETXEA | Goizuetako soinu terapeuta



«Soinuaren bidez jendeari oreka aurkitzen laguntzeak asko betetzen nau»

Soinu sanazioaren bidez, pertsona bakoitzari norbere esentzia, oreka eta indarra bilatzen laguntzen dio. Soinuterapia lantzeaz gain, meditazio taldeak zuzendu eta hitzaldiak ere ematen ditu.

ELKARRIZKETA → 3



Lesakako Feriak hilaren 26 eta 27an

Bi egunez ekitaldi ugari izanen dituzte. Egun haundian, Bortzirietako azienta-rik onenak sarituko dituzte.

→ 12-13

ZOKKETAK → 72



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58ra edo idatzi info@ttipi.net-era

DONEZTEBE LAISTER ERAIKITZEKO

ELIZAGIBELA KALEAN



PISUAK
TRASTELEKUAREKIN
SALGAI

106.000€tik
hasita

GARAJEAK
LOKAL KOMERTZIALAK

948 450 133

www.pisossantesteban.com



2015^{eko}
egutegi pertsonalizatuak



*Urte osoan
eskura
izateko!*



Mahai gaineko egutegiak

Modelo ugari aukeran
Trokelatuak,
paper edo PVCzkoak...



Paretan jartzekoak

Kontsultatu neurriak
hilabeteak ilargiekin,
euskaraz, elebitan...

Posterrak
Neurri handikoak
A1, A2, A3
paper lodian

Sakelekoak
55 x 85 mm
66 x 96 mm
Izkin borobilduak

«Egunero maitatzen duena egin eta egiten duena maitatzen saiatzen den pertsona xume bat naiz». Halaxe aurkeztu digu Julenek bere burua. Ttikitatik ezagutu ditu musika eta me-

ditazioa, eta egun, soinu terapeuta da. Soinu sanazioaren bidez, pertsona bakoitzari norbere esentzia, oreka eta indarra bilatzen laguntzen dio. Askok ibiltzen da kanpoan eta dioe-

nez, «indarra, denbora eta irabazitakoa formatzeko, entrenatzen eta motibatzen inbertitzen dut». Soinuterapia lantzean gain, meditazio taldeak zuzendu eta hitzaldiak ematen ditu.

Julen APEZETXEA | Goizuetako soinu terapeuta

«Soinuarekin jendeak izaten dituen aldaketak ikustea txundigarria da»

G. PIKABEA | GOIZUETA

Zer da soinu sanazioa?

Unibertso osoa, natura, berez bioerritmo, pultsu edo soinu armoniko batean mugitzen da, baita gu ere. Batzuetan, bioerritmo naturalaren oreka galtzen hasten gara eta hortik etortzen dira hainbat gaixotasun. Gauza bera gertatzen da gure gorputzean. Badakigu bibrazioaren bitartez berreskura dezakegula oreka eta osasuna. Objekturik txikienetatik hasi eta haundienetaraino, solidoenetatik likido eta gasetaraino, emozio eta pentsamenduetaraino, bakoitzak bere pultsu edo bioerritmoa dauka. Pultsazio elektromagnetiko hauek soinua sortzen dute. Bibrazio horien artean distorsioen bat sortzen bada, orduan datoz desoreka eta gaixotasunak. Desoreka horretatik berriro armonia bibrazionala naturala berreskuratzeko soinua erabiltzen dugu. Soinuarekin jendeak izaten dituen aldaketak ikustea txundigarria da.

Zer eta nola laguntzen duzu sendatzen?

Soinu terapiako aditu haundiek zientifikoki konprobatu dute soinu terapiarekin gaixorik dauden zelulen transformazioa lortzen dela eta zelula osasuntsuen ugalketa indartu. Maila fisiologikoa, emozionalean, mentalean, energetikoan eta espiritualean lantzen da. Estresa, migrainak, emo-



Julenek Goizuetako baserrian kontsulta pasatzen du eta Gipuzkoan, Alegian, Tolosa ondoan. Xehetasun gehiago: www.julenapezetxea.com webgunean.

zioak, depresioa, segurtasunik eza, autoestimu falta, insomnioa, hiperaktibitatea... transformatu eta pertsona lasaia, orekatuago, motibatua... zoriotsuago izateko bidea irekitzen laguntzen du. Baita maila muskularean, hezurretan, artikulazioetan eta organoetan ere, lesio fisiko (inflamazio, haustura...) edo gaixotasunekin (digestiborak, arnasketa, baskularrak, dermatologikoak, immunologikoak...). Erreperazioa azkartzen laguntzen du eta sendaketa espontaneoak ere ezagutu ditut neure pazientekin. AEBetan onkologian ere aplikatzen da minbizia duten pazienteei laguntzeko eta zienti-

SOINUAK

«Pertsona edo talde bakoitzak momentuan behar dituen arabera-koak dira saioak, eta soinuak ere bai. Musika tresna tradizionalak eta modernoak erabiltzen ditut: kuartozoko eta beirak, tibetarrak, kanpai tibetarrak, amerikar natiboen danborrak, txirulak, diapasoiak, kariloiak, gongak, shangak, tingshak... eta nola ez, ahotsa. Kantu armonikoa eta soinu sakratuaren kanalizazioa ere egiten dut».

fikoki konprobatua dago sendatze prozesuan soinuaren eraginkortasuna. Gure sistema biologikoa egoera homeostatikora eramanean eta mantentzen laguntzen du; garuna lasaitzen du eta berekin gorputzak, neuro-transmisoreek eta neuropeptidoek hobeto funtzionatzen laguntzen dute, sistema immunitarioa erregulatuz. Soinu sanazioak bihotzaren erritmo naturalari jarraitzen laguntzen dio, gure sistema emozional eta energetikoari ere bai. Orain arte gure sistema osoaren agintaria garuna zela uste zen, baina zientzia hasi da konturatzen bihotza dela moterra eta agintaria.

Nola bilatzen da norbe-

re oreka?

Bakoitzak bere prozesu pertsonala eta beharrak ditu bide honetan. Pertsona ezagutu eta bere egoeraren analisi bat egiten dut lehenengo, eta bakoitzaren beharretara moldatzen dut saioa. Norbere osasuna bilatzeko, oreka hori berreskuratzeko edo indartzen laguntzen duen erroa joan behar da. Pazientea eta bion artean egiten dugun bidaia batean bihurtzen da prozesua. Horretarako inkontzientea ere arakatzeko dugu. Bertan grabaturik daude bizi ditugun esperientziak eta erantzunak ere bai. Egoera normal batean baino pertzeptzio sakonagoa lortzen da, garuna erlaxatu eta kontzientzia zabaltzen denean. Maila sakonagoetara sartzen gara, barruko jakinduria esnatzeko. Gure baitan dago bila gabiltzan erantzunen mundua, eta soinua inkontzientean dimentsiorako atean irekitzeko giltza da.

Zer eman dizu soinu terapiari?

Neure burua eta ingurukoak une oro maila sakonagoan ezagutzen jarraitzea. Bizitzaren kausa-efektuen zikloa benetan ulertzea eta sentitzea. Soinuaren bidez jendea-ri oreka hori aurkitzen laguntzeak asko betetzen nau, indarra eta motibazioa ematen dit ikertzen jarraitu eta denekin zabal- tzeke. Gainera, oso gustura egiten dut! Milesker!



GURATRANS PROIEKTUA → URAREN ETA IBAIEN KUDEAKETA

Ura eta errekek: zaindu beharreko altxor preziatuak

Orain arteko lana Bera, Lesaka, Doneztebe eta Elizondon aurkeztuko dute azaroan

Europa mailako proiektu gisa aurkeztu dute, baina Nafarroa, Gipuzkoa eta Lapurdik partekatzen dituzten bertz ibai ditu oinarri: Bidasoa, Urdazuri, Urumea, Araxes eta

Leitzarain. Uraren eta ibaien kalitatea eta egoera hobetzeaz gain, eremu horietako entitateen arteko lankidetzaz landu eta herritarrek sentsibilizatu nahi dituzte, bertzeak bertze.

G. PIKABEA

Uraren eta ibaien kudeaketa hobetzea. Hori xe du helburu Guratrans egitasmoak. Europa mailako proiektua da, Eskualde Garapenerako Europako Funtsak eta Nafarroako Gobernuak finantzatu, baina funtsean Nafarroa, Lapurdi eta Gipuzkoako bertz ibai ditu

ardatz: Bidasoa Nafarroak, Gipuzkoak eta Lapurdik partekatzen dutena; Urdazuri Nafarroa eta Lapurdiren artean eta Urumea, Araxes eta Leitzarain, Nafarroa eta Gipuzkoaren artean. 2006 eta 2009 artean Nafarroako Gobernuak bultzatu eta CRANA Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide

Zentroak koordinatu zuen Nafarroako Uraren Foroan sortutako eskarrei erantzun nahi die, hainbat arazo atzeman baitzituzten orduan. Bidasoko Uraren Foroan, adibidez, hauek: ur hornidura ez dagoela bermatua herri batzuetan urteko sasoi batzuetan; ur faktorea ez dela aintzat hartzen hiri-

gintza-plangintzan; industriako, nekazaritza-abeltzaintzako eta hiri-uririk eragindako kutsadura eta ibaiertzen eta ekosistemaren egoera txarra; eta ibaien emaririk ezak arrantzan ondorio kaltegarriak dituela.

Oraingo, Baztan, Bera, Lesaka eta Donezteben landu dute batez ere Guratrans proiektua: Bera eta Lesakan ur eskaria kudeatzeko eta tarifazteari buruz azterlana egin dute; Lesaka, Doneztebe eta Elizondoko hainbat eraikin publikotan ekoauditoreak eta Baztan ibaira isurtzen diren hamar erreken azterketa ere egin dute. Gabeziak ikusi dituzte ikerketa horietan eta hobetzeko zer egin daitekeen bildu dute. Parte-hartze prozesu irekien bitartez egin dute orain arteko lana eta ehun lagunek baino gehiagok esku hartu dute era aktiboan talde, batzorde eta jardunaldietan.

Lan handiena Baztan-Bidasoaldean egin bada

ere, Leitzaldean ere ari dira. *Emakumeak busti egiten dira* egitasmoan oinarrituta, ibaietara urari lotutako lan bat egin dute Malerreka, Bortzirriak eta Leitzaldeko emakumeekin, eta Bidasoari buruzko egutegi bat eta Leitzarain eta Urumeari buruzko bertze bat ere bai. Baztan, Urumea eta Leitzarain ibaietan boluntario-tza sustatzeko lanean ere hasi dira eta Malerrekan gazteak sentsibilizatzeko jarduerak egiten. Ibaiek lehengoratzeko eta Bidasoa ibaiaren arrainen migrazioak sustatzeko, Iberdrolarena den Berako Zentral Hidroelektriko zaharreko presa ezabatzeko ere aztertu dute.

Hurrengo urratsa egindakoa lana jendaurrean paratzea izanen da. Egitasmoan parte hartu duten erakunde, entitate eta elkarteek konpromisoak hartu dituzte ura eta ibaien kudeaketa hobetzeko eta horiek Bera, Lesaka, Doneztebe eta Elizondon aurkeztuko dituzte.

GURATRANS PROIEKTUAREN BARRENEAN BAZTAN-BIDASOALDEAN EGIN DIREN AZTERLANAK

Ur eskaria kudeatzeko eta tarifatzeari buruzko azterlana Lesakan eta Beran

Gauzak nabarmen hobetu daitezkeela ikusi dute, hala nola, hornidura, uraren kalitatea, sareen presio estatikoa, hornidura-uraren kontrola, kudeaketa eta tarifaren egitura. Hauek dira proposamen horietako batzuk:

- Ihes aunitzeko sare zaharrak berritu.
- Banako kontagailuak paratu.
- Hornidura sarean ihesak atzeman.
- Sareko presioak optimizatu eta doitu.
- Ur beltzak iragazi eta ur batzuk eta bertzeak bereizteko sareak bikoiztu.
- Iturri publikoetan sakagailuak paratu.
- Ura eraginkortasunez erabiltzeko udal ordenantza.
- Hartuneak eta kontagailuak berrikusi.
- Bide publikoan obrak kontrolatzeko protokoloa.
- Igerilekuen zerrenda egin.
- Idortean jarduteko protokoloa.
- Uraren prezioak aldatu.
- Uraren fakturaren formatua aldatu.
- Udal instalazioetan eta kontsumitzaile haundietan ur ekoauditorekin egin.
- Txorrotetan aurrezteko gailuak banatu.
- Diru-laguntzak sakagailu bakarrekotako zisternak aldatzeko.



Ekoauditorekin Lesaka, Doneztebe eta Elizondoko hainbat eraikin publikotan

Toki hauetan egin dira ekoauditorekin:

- **Lesaka:** kirol instalazioak, futbol-zelaia, jubilatuen elkarteak, Lehen Hezkuntzako eskola, biltegia, suhiltzaileen lokala eta Xorroxin irratia.
- **Doneztebe:** eskola kontzentrazioa, frontoia, udako igerilekuak, kiroldegia, apartamentu tutelatuak eta Haur Eskola.
- **Baztan:** kirol instalazioak, komun publikoak, zahar-etxea, futbol-zelaia, eskola kontzentrazioa eta Baztan Ikastola.

Horiek aztertuta ikusi dute instalazio aunitzek ez dutela ur kontagailurik, presio estatikoa zertxobait altua dutela, txorrotak ez daudela tenporizatuta eta ez dutela aurrezteko gailurik, ez dagoela aireatzailerik konketetarako, zisterna baxuko komunak deskarga soilekoak direla eta dutxez ez dutela nahasgailurik. Eraikin horietan ur kontsumoa handia dela ere atzeman dute eta ia ez dela kontrolatzen. Hortaz proposatu dute ur kontagailuak paratzea, igerilekuetako ur galerak konpontzea, ura aurrezteko gailuak txorrotetan eta aparatu sanitarioetan paratzea, dutxetan agintea tenporizatuak paratzea, prezioa murrizteko balbulak paratzea eta erabiltzeak kontzientziatzeko kanpainak egitea.

Baztan ibaira ura isurtzen duten hamar erreken inguruko ikerketa

Baztan ibaira doazen Aranea, Kordoba, Izpegi, Arla, Aintzialde, Iñarbegi, Urdanazpi, Askoa, Ariztegi eta Beartzun errekek aztertuta, «sekulako dibertsitate biologikoa» dutela ondorioztatu dute eta «eginkizun garrantzitsua dutela korridore biologiko gisa. Edozein moduz, arazoak atzeman dituzte eta horiek konpontzeko proposamenak egin dituzte:

- Ibilguak hobetu, lubetak eta hormak dituzten tartekak lehengoratu.
- Uraren kalitatea hobetu.
- Ibaiertzak eta emari erregimena hobetu.
- Fauna babestu, zuhaitz helduak ongi kudeatu, presa tikiak ezabatuz eta erabiltzen ez diren alanbradak kenduz.
- Herritarrek informatu eta kontzientziatu.
- Erabilera egokien eskuliburuak egin: nekazaritza-abeltzaintza, kirola eta ludikoa. Enborrak kentzeko protokoloa landu eta abeltzainak sentsibilizatu mindekeragindako kutsadurak sortzen dituen kalteez eta ongarri, herbizida eta bertze produktuez.
- Eskolek bultzaturiko programa, ibaiak eta bazterrak garbitzeko beharrezko tikitik kontzientziatzeko. Boluntario-saioak edo auzolanak sustatu ibaietako zaborrak kentzeko.
- Bidezidorren sarea proposatu ibai ondareko elementuen eremuak lotzeko, baita Elizondon eginen den ibai parkearekin ere.
- Tamaina haundiko hondakinak biltzeko zerbitzuak hobetu ibaira ez botatzeko, Baztango Ur batzordea sortu, ibai eta errekek kudeatzeko plan integrala egin...

JAKINGARRIAK

ERRENDIMENDUA

Ur sarearen errendimendua **%35,34koa** da Beran. **Lesakan %39,53koa**. %75eko errendimendua onargarria da. Iruñerriko Mankomunitateko sareak %90ekoa du.

PRESIO ALTUA

Sarearen presio estatikoa altua da **Doneztebe, Bera** eta **Lesakan** eraikinetan.

FAKTURAZIOA

Ur zerbitzuarekin fakturatu estatu espainiarreko **batzbertzekoa baino %60 baxuagoa** da Beran, %51 baxuagoa Lesakan.

BERA DEFIZITARIOA

Ikerketaren arabera, Berako ur zerbitzua defizitarioa da, **%12,4ko finantza-defizita** sortzen du. 2012an 266.230,62 euroko gastua sortu zuen ur zerbitzuak eta aldiz, 200.989,73 euroko diru-sarrera izan zen. 2013ra begira, gastua 247.827,45 eurokoa izanen zela aurreikusi zuten eta sarrera 212.524,49 eurokoa izanen zela.

ELIZONDOKO KIROLDEGIAN KONTSUMOA

Giltzaudi Kirol Instalazioetan, erabiltzaileko batzbertzeko **kontsumoa 85,5 litrokoa** da eguneko. **Kontsumo eraginkorra 40 litrokoa** da erabiltzaile eta eguneko.

ELIZONDOKO ZAHAR ETXEAN KONTSUMOA

San Francisco Jabier Zahar Etxean erabiltzaileko batzbertzeko kontsumoa **288,4 litrokoa** da eguneko. **Kontsumo eraginkorra 200 litrokoa** da erabiltzaile eta eguneko.

SENTSIBILIZAZIOA

Erabiltzaileek ura aurrezteaz **kontzientziatio gutti** dute.

LESAKAN ORAIN GASTUAK ESTALTZEN DITUZ-

Lesakako ur zerbitzua defizitarioa izana da. 2012an, zerbitzuak 146.432,84 euroko gastua sortu zuen eta fakturazioan 121.369,35 euro bildu ziren. Baina tarifak igo dituztenez, orain **%11,96eko superabita** utzi du. 2013ra begira, gastua 146.432,84 eurokoa izanen zela aurreikusi zuten eta sarrera 155.955,34 eurokoa izanen zela.

DONEZTEBE

Doneztebeko ekoauditorekin bitartean, **kontagailuak paratu** zituzten halakorik **ez zuten eraikinetan**. Igerilekuetan eta eskola kontzentrazioan, adibidez. Kontagailuak paratuta, igerilekuko hodian ur isuri haundia atzeman zuten: eguneko ur emari arrunta 23 m³koa izanen litzateke, eta kasu honetan, 89 m³koa zen.

URAREN KALITATEA

Uraren **kalitatea ona** da, baina **ekaitzak izaten direnean urak uhertasuna** izaten duela ikusi dute Doneztebe eta Lesakan eraikin publikoetan egindako ekoauditoretan.



Nire txanda
Beñardo GOIETXE

Mundujaleak

Lapur txikiak kastigatzeko nonahi badago kartzela; handiak hor ikusten ditut paseoan da-biltzala” dio Txirritaren bertso zahar batek. Zoritxarrez, Lurra bezain xaharra dugu boterearen eta diruzaletasunaren afera ustela. Eta ematen du tarteka arrain handiak ere preso joaten direla... Baina trankil, ez dute gogorki irauten, fite aski ateratzen dira itsasora, urreak dena arintzen baitu. “Emaiozu sosa ausarki norbaiti eta jakinen duzu zer jende klase den” aditu izan dugu zenbait aldiz. Honderaldian maiz agertzen ari dira euro-nahi asezinak pozoituriko jaun-andre errespetagarriak, hain justu ere, krisia aberats porrokatuen eta pobreen arteko alde izugarria haragi bizitan uzten ari delarik. Eta “harrigarriena” zera da, nonahiko hainbat politikari “prestu” eta “umil” nahasirik izatea. Nafarroan ere andana bat esku beltz eta txartel zuri dantzatu direla argi dago, eta ustel usaina lurrin karioekin estali nahita ere, ezin halako gezur gorotz mukuruak garbitu. Dirua behar ez direnetan harrika bota den seinale.

«Emaiozu sosa ausarki norbaiti eta jakinen duzu zer jende klase den»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Yes we can, Podemos...

Etxe Zuriko lehen presidente beltza izateko bidean zenean Obamak sortzen zuen ilusio beretsua sortarazi du Espainia aldean Moncloako lehen maizter koletadun korbatagabea izan daitekeen Pablo Iglesiasek. Biek ere lelo-izen beretsua aukeratu dute, elkarlanaren aldarri. Estatu Batuetan aldaketa handiegirik ez da antzeman eta ikusteko dago Espainian zerbait aldatzeko aukerarik ere izanen duten.

Nabarmentzekoak



Dennis URUBKO
Errekaren Mendi Egunean

Hamalau zortzimilakoak eginak dituen Kazakhs-tango mendigoizalea izan da abenduaren 6ko Errekako Mendi Egunean izar nagusia. Gainera, K2 neguan igotzen lehena izan nahi du.



Unai SANTAMARIA
Lizuniagako Igoeran garaile

Manttaleko korrikalari hernaniarrak lehen aldiz irabazi du Lizuniagako Igoera. Lasterketa gehiena Santi San Miguel doneztebarraren gibelatik egin zuen, baina azkenean nagusitu egin zen.



Iosune ORTEGA
Baztan Ikastolako zuzendaria

2015eko Nafarroa Oinez Baztan Ikastolak antolatuko du, *Hamabortz, ama bat* lelopean. Baztanek 15 herri, Nafarroak 15 ikastola eta ama euskarara bakarria dutela irudikatu nahi dute.

Atzera begira → 2004-XI-18 / TTIPI-TTAPA 386 zk.



Fernando Sarratea Doneztebeko eguraldia begiratzeko

2004. urtean hogeitaz urte baino gehiago zeramatzen Fernando Sarrateak eguraldiaren datuak hartzen Nafarroako Gobernuarentzat. Metereologo afizioz, inork baino hobeki kontrolatzen zituen eguraldiaren gorabeherak, egunero-egunero etxe aitzinaldean zuen tresnarekin tenperaturak hartzen baitzituen. Aldiz, ez zuen bere burua eguraldi gizontzat hartzen, eta ez zitzaion gainera, bihar-munean zer eguraldia egingen zuen asmatzen aritzea gustatzen. «Telebision aritzen direnak ere ez dute beti asmatzen eta guk nola asmatuko dugu bada? Guk baino gehixeago asmatuko dute, seguro!», zioen.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredaktore burua Gurutze Pikabea Erredaktzioa Eneitz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola Berriemaileak Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria40€	Europa59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka34€
Ipar Euskal Herria59,50€	Amerika eta Australia124€	Leitza17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Autonomia

Pello APEZETXEA

Urreko hainbat tokitan autonomia da jendeak bizi duen gai garrantzitsuetako bat. Nork ez du entzun eta ikusi Eskozia, Katalunia eta Euskal Herriaren autonomiari buruz solas egiten, bilkurak eta manifestaldiak plantatzen, independentzia aldarrikatzen? Pertsonak eta herriak bere kabuz erabakitzea zer eta nola nahi duen bizi, bere izaerari dagokion eskubidea da, itxuraz edozeinentzat ulergarri samarra izan behar lukeena. Baina gatazka ugari sortzen duena.

Jende eta herri guztien eskubide adierazten dugun horrek, izan ere, oztopo aunitz izaten ditu, etsai aunitz. Gizakiak elkarren beharra du, eta elkarri errespetu handia zor dio, baina elkar menperatu nahia ere maiz sentitzen du. Gehienetan, bertzeaz eta bertzearen balio eta ondasunez probex-teko. Horregatik bertzeen autonomia ez du onartzen, gutiago independentziaraino ailegatu nahi badute.

Gauza bitxia bada ere, bertzeak menean edukitzeko arrazoitzat legea adierazten dute, aunitzetan. Nork sortutakoa da, ordea, lege hori? Menperatzaileak, eta, noski, menperatzaileari komeni zaion bezalakoa. Gainera, batzuk nagusi bihurtzea, eta nagusi izaten jarraitzea, egiatan indarrak eragiten du, armen indarrak, batez ere. Estatu eta herrialdeen mugak gerren ondorioak dira, ia beti. Horrela soilik konprenitzen ahal da Euskal Herriaren zati bat Espainia estatu-

koa izatea eta bertze zatia Frantzia estatukoa. Eta gauza bera gertatzen da Kataluniarekin. Hainbat eta hainbat lurraldetan bezala. Nola atzendu Nafarroa duela 500 urte estatu independentea zela, eta Gaztelako ejertzitoak konkistatu eta Espainia-ko zati bihurtu zuela?

Maila tikiagoan, herriak eta herriskak autonomoak izatearen alde jokatzeko egoki dela iduri du, guttieneko ahalbideak dituztenen arabera, behintzat. Euskal Herrian gai honetaz eztabaida franko bada, udal hirietako zenbait auzok bereizi nahi eta. Dena den, iritziak desberdinak direlako, herriskak batzearen aldeko saiakerak ere izan dira eta badi-ra. Nafarroan kontzeju deitutakoak desagertzea, eta udalerrri tikiak handiago batean biltzearen asmoak gaur ere bizirik daude zenbait agintari eta alderdi politikoengan.

«Gauza bitxia bada ere, bertzeak menean edukitzeko arrazoitzat legea adierazten dute, aunitzetan. Nork sortutakoa da, ordea, lege hori? Menperatzaileak, eta, noski, menperatzaileari komeni zaion bezalakoa»

1914ko gerra

Mikel TABERNA IRAZOKI «Kapi»

Joan den uztailaren hogeita zortzian justu ehun urte bete baitziren Lehen Mundu Gerra hasi zenetik (1914-1918), hartaz erausian ari ginea, hura buxeria bat izan zela erran zidan Sarako Pantxoak lehengo batean, karnizeria bat. Hamar bat milioi lagun hil ziren eta horiek halako hiru kolpaturik gelditu ziren bizi guziko. Hilan artean baziren sei-zazpi mila euskaldun; ongi gogoan dute Iparraldean. Denok ikusiak ditugu herri guzietan orduan hil zirenen alde eginiko monumentuak, “Morts pour la patrie”. Tragedia hartaz jakin nahi duenak denbora hartako kronikak irakurtzen ahal ditu. Ttipi Ttaparen eskualdean berean badira orduan famatu ziren idazle onak. Konparazio batera, hor dugu Jean Elissalde azkaindar apez (1883-1961), gerraz hainbertze eskribitu zuena, soldadu gisara parte hartu baitzuen; edo Kanboko mediku izan zen Jean Etchepare (1883-1935), sendagile modura frontean lanean abaila aritua eta hango berri emanez idatzi zuena. Baina, erran bezala, ordukoa ez baitago ahanzia, gerra finitu eta ehun urtera oraindik segitzen dute lan berriek argia ikusten. Aurten berean, Eneko Bidegain baionarrak *Lehen Mun-*

du Gerra eta Euskal Herria lan joria prestatu du: letra eta datu argigarri aunitz gerra odoltsuaz gehiago jakin nahi duenarentzat. Eta hurbilago ere badugu bertze lan bat nahitaez aipatu beharra, Senperen, hain zuzen ere: Auxtin Zamorak *Senper tar ingumak 1914-1918* izeneko obra ekarri digu besapean, *Lapurdi 1609* elkartearen laguntzarekin. Urte haietan gerrara joateko adinean ziren 553 herritarren berri ematen digu, bakoitzaren izendeiturak eta zer etxetakoak ziren paratuta: nor joan ziren gerrara, nor ez ziren joan, nor-non hil zen, nor kolpatua suertatu, nor joan zen ihes... Izan ziren joan nahi izan ez zutenak, bai eta joan ondolik desertatu zutenak ere. Haietako batzuk mugaren lerroa gurutzatu zuten, eskapu, libre izateko. Batzuk, gero Ameriketara joan ziren, bertze batzuk Hegoaldeko herrietan gelditu ziren bizitzen. Ondorio hori ere ekarri dute beti gerrek inguru hauetan: jendea mugiarazi dute alde batetik bertzerara. Pertsona horiek orratzaren eta hariaren lana egin dute maiz, bi aldeetako arteko harremanak hobeki josteko.

«Ondorio hori ere ekarri dute beti gerrek inguru hauetan: jendea mugiarazi dute alde batetik bertzerara. Pertsona horiek orratzaren eta hariaren lana egin dute maiz, bi aldeetako arteko harremanak hobeki josteko»

Irakurleak mintzo

Elizondoko Lanbide Heziketa ikastetxea

Elizondoko Lanbide Eskolako Zuzendaritza Taldea

Idatzi honen helburua eskualdeko gizarteari Elizondoko Lanbide Eskolako Lanbide Heziketa zentro inbetsioa egiterik, izan ere, eraikinak osotasunean behar duen inbetsioa handia izateaz gain eskualdeko Lanbide Heziketa eskaintza biltzeko eta eguneratzeko espazio egokirik ez baitu.

Hezkuntza sailaren nahia eskualdeko LH osoa bilduko duen ikastetxe berri bat eraikitzea da. Jakinarazi digutenez, eskualdeko Lanbide Heziketa eskaintza berrikusiko dute eta eskaintza horretan berrikuntza aurrerak egon daitezke. Halere, Hezkuntza Sailaren arabera, proiektua gaur egungo egoera ekonomikoak baldintzatua egoteaz gain Foru Gobernuak gainerako Sailen esku ere badago eta beraz, aitzinera eramateko guztien onarpena eta babesa beharko luke.

Moldaketa prozesu horretan murgilduta ginel, ekainaren 30ean ustekabeko gertaera bat izan genuen. Hain zuzen ere, ikastetxeko eraikineko teilatu zati bat erori zen eta ondorioz, Hezkuntza saileko teknikoek eginiko azterketaren emaitzen txostenaren arabera, eraikineko teilatuaren egoera kezkatzekoa da.

2014-2015 ikasturteari hasiera emateko Hezkuntzak konponketa egin eta segurtasun babes-neurriak premiazko bidetik hartu ditu (urte baterako). Honela, ikastetxean kurtsoa martxan jartzea posible izan da.

Hezkuntza saileko Lanbide Heziketa Atalarekin hainbat bilera egin ditu-

gu eta bilera hauetan Baztan-Bidasoalde osoan erreferente izanen den Lanbide Heziketa Zentru Integratu baten beharra adierazi digute.

Gainera, Hezkuntza sailak ez du bideragarritzat jotzen Elizondoko Lanbide Heziketa ikastetxeko eraikina konpontzeko inbetsioa egiterik, izan ere, eraikinak osotasunean behar duen inbetsioa handia izateaz gain eskualdeko Lanbide Heziketa eskaintza biltzeko eta eguneratzeko espazio egokirik ez baitu.

Hezkuntza sailaren nahia eskualdeko LH osoa bilduko duen ikastetxe berri bat eraikitzea da. Jakinarazi digutenez, eskualdeko Lanbide Heziketa eskaintza berrikusiko dute eta eskaintza horretan berrikuntza aurrerak egon daitezke.

Halere, Hezkuntza Sailaren arabera, proiektua gaur egungo egoera ekonomikoak baldintzatua egoteaz gain Foru Gobernuak gainerako Sailen esku ere badago eta beraz, aitzinera eramateko guztien onarpena eta babesa beharko luke.

Euskal errepublika egituratzeko beste argudio on bat

Joxe Fermin LIZARRAGA
(Leitzako Independentista Sarearen izenean)

Independentista sareak antolatuta, abuztuaren 9an Leitzan, independentzia eguna ospatu genuen. Egitarau zabalak izan zuen eguna osatzeko, jende ugariaren borondatezko parte hartze bizia behar izan ge-

nuen. Eskerrak lagundu ziguten guztiei.

Guregana hurbildu nahi izan zuten guztiekin, aldarrikapena eta jaia era baketsuan ospatu ahal izan genuen. Ez zen inorentzako mehatxu, iseka edo antzeko deus izan gure ospakizunean. Hala ere, badirudi agintean diren unionistek ez daukatela era baketsuan egiten diren aldarrikapen independentistak errespetatzeko adina duintasun demokratikorik.

Independentzia eguna arrakastatsua izan zela eta, zenbaiten ezin sufritu oso handia dela dirudi, sare kide bati 1.200 euroko isuna jarri baitiote. Horretarako aitzakiaren bat behar eta: Ziurrenik ondorioak frogatu aurretik jarriak zituen polizia txostenen batetan oinarrituta, legez kanpoko manifestazioa egin omen genuen. Biharamunean herriko festak hasten zirela gogoan izan, eta erraldoiak, dantzariak, txistulariak, Kataluniatik etortako trabukersak, kastellerrak altxatzen aritu ziren lagunak, eta jende ugari parte hartu zuen kalejira alai eta koloretsu bat egin genuen.

Agintean diren unionistek gogoko ez daukaten edozeri ematen dioten erantzun errepresiboak; independentista ez izan da ere, soilik demokrazia zale den edonori zer pentsa eman beharko lioke. Aldarrikapen baketsuei, erantzun poliziala besterik eskaintzeko gai ez den estatua, lehenbailehen Euskal errepublika egituratzeko beste argudio on bat baino ez zaigu ematen ari.



Bota bertsoa

Uxue MESA GARMENDIA • Doinua: ETaren su-etenetik
Baztan-Bidasoko XXVII. bertsopaper lehiaketan
2. saria (11-14 urte)

Kanpora joanen zara bizitzera, maleta egiten ari zara

Amak gaur erran dila exertzeko bere ondun gauza bat neri errateko bazula bueltaka burun alaba ez gara bizi b(eh)ar orain bizi garen lekun agurtu beharko dituzu zure famili ta lagun orain sentitzen naizela pertsona okerreuna mundun beti izango zaitudala nere bihotzean Irun hau baino herri hobegorik ez dute ikusiko inun.

Kalera ateratzeko soin eta galtza estuak eta babesteko krema ez erretzeko eskuak mandiririk ez badago bada ezpada zakuak maletan sartu ditut nik album ta erretratuak spraeiz pintatu nitun alde zaharreko lekuak kultur etxearen atzean errandako sekretuak ez ditut ahantziko Irunen bizitako momentuak.

Larre handietako behi baserrietako zerriak Euskal Herriko erleak punttudun manttangorriak mendietako paisaia urriko zuhaitz gorriak zelaietan amarekin dauden arkume berriak eta zeruan bueltaka arrano beldurgarriak adarren gainean xutik txioka txantxangorriak tokitxo bat bihotzean hartu dit Euskal Herriak.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTAPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Badira akaso 40 urte inguru kaikuak egiten hasi nintzela. Kasualitatez, Erratzura etorri nintzen bizitzera. Hemen aukera izan nuen kaikua nola egin ikasteko. Eguraldi txarra zenean eta libre nintzenean, Domingo Etxandirengana joaten nintzen. Hark animatu ninduen etxean tailer ttiki bat prestatzera. Horrela hasi nintzen eta horrela segitzen dut».

Xanti OTEIZA
Erratzuko kaikugilea
HITZA 2014.10.24



«Bizioarekin ere lotura badu gure egitekoak. Kantuak behar ditugu bizirik sentitzeko. Hori kantautore baten jantaria da, eguneroko ogia, erakustea badela gauza doinuak eta hitzak elkartzeko eta jendeari sentimenduak sortzeko. Andonik [Morau] betidanik izan du kantautore sen hori, eta izanen du betiko, nahiz eta talde bat edo ni bezalako laguntzaile bat izan ondoan».

Beñardo GOIETXE
Zugarramurdiko musikaria
BERRIA 2014.10.29

11 galdera labur

Nor dugu Aroa Huarte?

Eslaviar filologo euskaldun bat.

Kaixo edo Привет?

Hala da errusieraz. Agur nahiko informala.

Nolatan ikasi zenuen Eslaviar filologia eta Errusiar hizkuntzan espezializatu?

Hizkuntza bat ikasteko gogoak banituen, eta Errusiak sortzen zidan halako lilurapen bat, bai bere literaturagatik, bai bere historiagatik edo bere dimentsioen-gatik.....

Ikasitakoa erakustera pasazara orain...

Pozgarria da dakizuna beste transmititzea, eta erakustea ikasten jarraitzeko modu bat da.

Orokorrean zenbat dakigu Errusiar hizkuntzaz?

Orokorrean beraiek gureaz dakitena baino gutxiago.

Leitzako negua edo Errusiakoa da gogorragoa?

Errusiakoa askoz ere ho-

tzagoa eta lehorragoa da, baina prestatuta egonez gero, arropa egokiekin eta egoerara moldatuta, kalean azkar ibili, denbora ez oso luzez... Giro berezi horrekin asko gozatu daiteke.

Errusian zer botatzen zenuen faltan eta hemen egonda hango zer?

Sei hilabete egon nitzen Moskun eta ondoren urtea San Petersburgon. Han faltan botatzen nuen batez ere inguru soziala eta hemen berriz, hango janariak, negua eta hizkuntza.

Errusian bisitatu beharreko leku bat?

San Petersburgoko Neva ibaia eta itsasbattera, neguan izoztuta daudenean.

Leitzako gustuko txokoa?

Nere etxeko balko-bea.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Erabat ezegonkor.

Amets bat?

Nire ametsik gogokoenetakoak dira hegan egiten dudan amets horiek.



Aroa HUARTE → Eslaviar filologo leitzarra

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

Karsuk®
Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko altzariak
Karloa Pombar Sainz
C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
joko luze & corto
Karrantzen 12 • BERA
Tfno/Fax: 948 630 018

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta
Instalazio Elektrikoak

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Eibarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

BORTZIRIAK

OSASUNGINTZA → SINADURA BILKETA

Mediku edota pediatra euskalduna eskatzeko kanpaina hasi da

UEMA eta Euskara Mankomunitateak bultzatuta

TTIPI-TTAPA

Medikua edota pediatra euskalduna eskatzeko kanpaina abiatu da Bortziritan, UEMAren eta Bortziritako Euskara Mankomunitatearen eskutik. Osasun alorrean garatzen diren hizkuntza-politikak aldatzea du helburu egitasmo honek, eta gehiago zehaztuz, familia- medikua edota pediatra erdaldunak dauden herrietan profesional euskaldunak bermatzea da helburua. Bultzatzaileen erranetan «kanpainaren asmoa ez da, inondik inora, Bortziritako osasun zentroetako langileen kontra egitea, haiek euskarazko zerbitzua eskaintzea/euskaraz jakitea baizik, baina momentu honetan hizkuntza eskakizunik ez dutenez, egoera horri irtenbidea ematea lortu nahi da. Horretarako plantilla organikoan behar diren aldaketak egin ditzaten eskatu nahi da kanpaina honen bidez».

Eskuartearen duzuen TTIPI-TTAPAREN ale honetan bertan aurkituko duzue kanpainaren berri

ematen duen eskuorra eta beharrezko informazioa. Medikua edota pediatra euskalduna nahi dut kanpainarekin bat egin nahi duenak eskaera orri ofizial bat bete beharko du. Hura eskuratzeko hainbat bide ditzuzue: herrietako euskara batzordeko kideek eskuz esku banatuko dituzte ale batzuk, horiez gain ikastetxeetan, Herriko Etxeetan, Lesakako Osasun zentroan edo Lesakako ferrietan lortzen ahal dira eskaera orriak.

Behin eskaera orria jasota bete egin behar da eskatzailearen izen-abizenak emanez eta zer eskatu nahi duen azalduz. Ohartuko zareten moduan eskuorriaren atzekaldean eskaera egiteko adibide gisara jarria duzue esaldi bat. Hau bera idatzia etorriko da eskaera orrian, ondoren sinatu eta eskaera orria jaso duzuen leku berean utzi, edo sinatzeko eman ditzuzuen batzordekideari itzuli. Azaroaren 17tik 30era bitartean izanen da eskaera orriak bete eta sinatzeko epea.

Bortziritan orain hasiko den sinadura bilketa hau bera egina dute aurretik Baztanen eta Leitzaldean, 65 eta 171 eskaera bilduz eskualde bakoitzean. Orduan



UTZITAKO ARGAZKIA

Aldizkari honekin batera informazio eskuorra banatu da Bortziritan.

emandako datuek agerian utzi zuten osasun alorreko profesional euskaldunen eskasia, «Nafarroako UEMAko 14 udalerrietan, 8 pediatra ari dira lanean eta horietatik lauri bakarrik

eskatzen zaie euskaraz jakitea» Eneka Maiz, alorreko profesional euskaldunen eskasia, azpimarratu bezala.

HURRENGO URRATSAK

Bildutako eskaerei jarraipena egingen zaie,

orain, eta bertzetik, Nafarroako Gobernuari eskaera formalak egingen zaio eskakizun horiek denak kontuan hartu eta plantilla organikoan beharrezko aldaketak egin ditzan.



Grupo AN



**KALITATE MAXIMOA
PREZIORIK HOBERENEAN**



AN ENERGÉTICOS LESAKA
Alkaiaga Industrialdea • Banarta, 18
(N 43° 16' 50" - W 1° 41' 40")

**GASOLIO A
prezio
ezin hobek**

ESKAINITZA BEREZIA!!
Irailan eta urrian 5 zentimo/litro deskontu zuzena bankuko kartelarekin ordaintzerakoan

ETA GARRAIOLARIANTZAT...
Kafea+pintxo edo ardoa+pintxo 2,50€ gasolio erosita
Eguneko menua 600 euro gasolio baina gehiago erosiz gero

Erosketa-tiketa aurkeztu behar da*

*Tiketa baliagarria irailaren 15tik abuztuaren 31 arte. Zuzenean bakoitzeko tiketa bakoitzeko behar da. Targaneta bakoitzeko 2000 litro baino gehiago gasolio erosi gero, 2000 litro baino gehiago gasolio erosi gero, 2000 litro baino gehiago gasolio erosi gero, 2000 litro baino gehiago gasolio erosi gero.

ERABILGARRI EGUNEKO 24 ORDU

GIZARTEA → AZAROAREN 23AN

Bigarren eskuko merkatu txikia antolatu du Labiagak

09:00etatik
15:00etara
jarriko dira
postuak
kiroldegiko
atarian

TTIPI-TTAPA

Bigarren eskuko merkatu txikia antolatu du Labiaga ikastolak azaroaren 23an. Igan-de horretan, 09:00etatik 15:00etara jartzen ahal dira postuak, Toki Ona kiroldegia atarian edo, euria eginen balu, Altzateko frontoian. Postua jartzeko interesa dutenek ikastolara deitu behar dute (948 630172 telefono), 09:00etatik 12:00etara. Merkatu txiki irekia izanen dela azpimarratu dute ikastolatik.

Ile-mozketa eta orrazketa solidarioak

Iaz bezala, Yoan ilea-paindegiak ANFASel-karteari laguntzeko eguna plantatu du. Hone-la, azaroaren 22an, 15:00etatik 20:00etara lortzen den diru guztia

ANFASendako izanen da. Orrazketa eta ma-killajea edo manikura-ren truke 20 euro ordaindu beharko dira eta gizezkoen ile mozketarengatik 10 euro.

Modu berean, zozketa-tatu dituzten Aspe, Osasuna, Erreal eta Athletic-eko sinatutako kamisetak ere orduan banatuko dituzte. Kamiseta horiek lortzeko bolotoak euro batean salgai daude Yoan ileapaindegian, Xuga, Errekalde eta Auzoa ostaluetan eta Lesakako egoitzan, edo 636 804504 telefonora deituz. Zozketa azaroaren 14an eginen da eta hilaren 22an banatuko dituzte sariak Yoan-en.

Julio Caro Barojari omenez ekitaldiak

Julio Caro Barojaren mendeurrenako ekitaldien barne, azaroaren 15ean, larunbatean 19:30ean omenaldia eskainiko zaio Kultur Etxean. Igandean, berriz, oroitzapenezko ekitaldia eginen da 12:00etan hilerrian Iruñeko Orfeoiarekin eta 12:30ean kontzertua eskainiko dute Kultur Etxean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lurraren Egunean 28. edizioak karrikak bete zituen

Eguraldi eguzkitsu eta epela lagun, jendetza bildu zen 28. Lurraren Egunean. 107 eskulangileren eta 37 elikadura produktuen postuak jarri ziren. Gazta lehiaketan hamar ale aurkeztu ziren eta horien artean, Berako Garmendikobordako Sokorro Almandozek eraman zuen 300 euroko lehen saria eta Arantzako Tuanebordako Marisol Almandozek bigarrena, 100 eurokoa. Sagardo lehiaketara, berriz, 17 botil sagardo aurkeztu ziren. Alkaigako Patxi Pikabea Zubietarenak eskuratu zuen 200 euroko lehen saria. eta Lesakako Buenosaireseneko Josefa Almandozek bigarrena (75 euro). Bezperako barazkiopil lehiaketa, hamar koadrilen artean, Manttaleko neskek irabazi zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Don Julioaren arrastoa hilaren 23ra bitarte ikusgai Kultur Etxean

Julio Caro Barojaren mendeurrenako ekitaldien baitan, *Don Julioaren arrastoa* erakusketa ireki zen kultur etxean urriaren 24an. Juantxo Larramendi margolariak gidatuta, beratar talde batek egin du lan sorginak protagonista dituen erakusketan. Julio Caro Barojaren mundua haurrei erakustea du helburu. Caro Barojak berak margotutako hainbat koadro eta herriko ikastetxeetako ikasleek egindako marrazkiak bildu dira erakusketaren erdian dagoen sagarrondoan, ikus-entzunezko batekin eta herritarrek utzitako koadroekin batera. Azaroaren 23ra arte bisitatu ahal izanen da, astelehenetik ortziratera 17:00etatik 20:00etara, eta asteburuetan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

SMAZIZIOR edariak
948 631 557
Ziobi, 3 ALKAIAGA
maziziorsenper@gmail.com

EDARIEN eta JANARIEN SALMENTA eta BANAKETA

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

BAR Botxo OSTATUA
Zalain • BERA • 948 630 052

IZARRA OKINDEGIA
Ongi pasa feriak!
PLAZA ZAHARRA 12-13 30770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

TALLERES FRAIN
LESACA - Tel.: 948 637 525
Ongi pasa feriak!

TRANSPORTES IRIGOYEN
ONGI PASA FERIAK!
629 592 215 - BUITRANA GAZTUA, 1 - LESAKA

GOZOTEGIA **HAIZEA** BOLLERIA
KAFETEGIA
Ongi pasa feriak!
T. 948 63 80 38 • Plaza Zaharra, 7 • LESAKA

Otxandego Ongi pasa feriak!
T. 948 638 126
LESACA
ASTERBUJUAN KARTAKO BAZKARAK ETA
AFARIK ENKARGUZ
Petxak, botakak, pider konbinatuak

IRU BIDE Erretila, Asador
Buitras, 3
LESACA
Tel: 948 637 127

www.kattagorria.com
kattagorria
lentzeria martzaria
Behoko plaza, 10 LESACA • 948 627 514
Baserritar jantzien KOLEKZIO BERRIA
ESKANTZA HANDIA!
FERIETAN,
EGUN OSOA IREKIA
eta %10eko DESKONTUA

LESAKAKO FERIAK

Azaro hondarrean helduko da feria giroa Lesakara

Azarako azken ortzegunean, hilaren 27an, egingen dira Lesakako feriak. Urtero bezalaxe, ganadu sailek eta saltzaileen postuek beteko dituzte karrikak Lesakako Udalak antolatutako duen egun osoko bestan.

Goizean artisauek egindako lanak ikusteko aukera izanen da Beheko Plazan: egurra landuz, hariak lotuz... Herriko karriketan azienda saila, gozogileek egindako pastel eta mokadu goxoak, denetarik eskaintzen duten saltzaileen postuak... egonen dira egun osoz.

Herri kirolek ere ez dute hutsik egingen, 11:00etatik aitzinera aizkolariak arituko dira lanean. Ondoren, Lesakako Bertso Eskolak antolatzen duen bertso saioa izanen da Plaza Zaharrean, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso ariko dira kantuan. Tenore horretan egingen da azienda lehiaketaren sari banaketa ere.



Goizeko ekitaldien ondotik, arratsaldean pilota partidak jokatuko dituzte. 17:30etan hasiko dira eta bi partida izanen dira. Bitxikeria bezala, Olaizola I. eta Olaizola III., Gofii eta Otxandorenaren aurka arituko dira. Eguna borobiltzeko 19:00etatik aitzinera Trikitbeltz taldearen musikarekin dantzan aritzeko aukera izanen da.

Bezperan ere bai

Feria egun handia ortzegunean izaten den arren, bezperan ere hasten da nabaritzen karriketan giro berezia. Beti Gazte Elkar- teak antolatzen duen ajoarriero lehiaketa jokatu da 18:00etatik aitzinera Beheko Plazan. Ordu berean, Lesakako Trikitixa taldeak kalejira egingen du.



XAGU LIBURUDEGIA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(kasasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA
LIKIDAZIOA
KUKUXUMUJUZU karnesentziak
Herrikoak 10€
Haurrak 5€

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN
facebook
www.facebook.com/tpi.ttapa
www.facebook.com/tpi.net
EGIN ZAITEZ GURE LAGUN



Bortzirietako azienda hoberenen bila

Lesakako ferietan protagonismo handia hartzen dute inguruko abelburuek, Bortzirietako azienda lehiaketa egiten baita. Goizeko 11:00etatik aitzinera Plaza Zaharrean eta inguruko karriketan betabereak, zaldiak, pottokak, monturakoak, poniak, ahariak eta zabalberek egonen dira ikusgai.

laz esate baterako, 148 azienda aurkeztu zituzten. Horietatik 104 zaltabereak ziren, tartean pottokak eta monturakoak, 39 behi, batzuk bere aretzearekin eta zezenkoren bat betabereetan eta bortz ahari.

Sari banaketa eguerdian

Lehiaketa kategorია desberdinetan banatua dago eta horren arabera banatzen dituzte sariak. Hala, aurkeztuko diren haragitarako behi, Suitza eta zaldi aziendak maila desberdinetan banatu eta talde bakoitzetik hiru hoberenak sarituko dituzte.

Azken hiru urteetan bezala, pottoka, montura eta poni onenek ere saria jasoko dute eta ahariak ere plazaratu eta saria izanen dute.

Sari banaketa eguerdi partean eginen dute eta orduan jakinen da zein diren aurtengo Bortzirietako azienda hoberenen jabeak.



ONGI PASA FERIEGAN!
borz zud
948 631 521
material sustintzen inarimaten Ruge
Barrisatzen 7. apartekoan artibulua

Lesaka - Bera
AUTOESKOLA
Kategoria: C1 - BERA Informazioak: plaza 8 - LESAKA
948 630 632 948 637 570
ESKAINITZA BEREZIAK
Gidabenera gutxi
Gidabenera multzoa zoroaketa ohera

IÑAKI JANARIDENDA
- ONGI PASA FERIAK -
Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

KOXKONTA
JAIETXEA I LESAKA

FERIETAKO MENUA

30€

Ongi etoni salda gozoa
Urdiazpiko ibetkoa
Triphoi eta otzainiska-anoz
koematxua
Onddo hostonea
Zapoa labean ponadisa patatokin
Arpizuna
Poshea, ondo, ura
eta kafea

Ongi pasa ferietan
T. 948 627 519

ZOANSA
ONGI PASA FERIEGAN!
TXAPA - PINTURA - MEKANIKA - ELEKTRIZITATEA
BMW Audi Volkswagen Hyundai
Donostia, 2 Alkazarra ind. - LESAKA (Gambra Beratik)
T. 948 625 555 | 948 625 505
100M09@zoansa.com

KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE

feria alai eta
pozgarriak
izan ditzazuela

Plaza Zaharra • LESAKA • 948 63 72 87

LESAKA

GIZARTEA → AZAROAREN 15EAN

Independentzia Eguna eginen dute larunbatean herrian

Baztan-Bidasoaldeko Ernaik antolatuta, hitzaldiak, herri bazkaria, jokoak, manifestazioa eta kontzertuak izanen dira



ARGAZKIA: RAFAEL ENETERREAGA

San Fermin Elkartearen Egunean omenaldiak egin dituzte

San Fermin Erretiratuen Elkarteak, Udalaren laguntzaz jubilatuen eguna antolatu zuen urriaren 24an. Urtero bezala, Urrezko Ezteiak eta 85 urte bete dituztenei omenaldia eskaini zitzaion. Aurten, 50 urte ezkondurik bete dituzten Lorenzo Fragoso Cañamero eta Dominga Lopez Giraldo eta Fernando Reyes Cantero eta Teresa Yepes Zamorano senar-emazteak eta 85. urtebetetzea egin duten Josefina Sagardia Alzugarai, Jose Mitxelena Abanz, Jose Irurieta Petrirena eta Jose Otxoteko Almandoz omendu zituen CAN Fundazioak. Mezaren ondotik, Iker Tainta dantzariak Aurreskua dantzatu zien omenduei Plaza Zaharrean. Ondotik bazkari dotorea izan zuten frontoian. Bazkalondoa, oroigarriak eskaini zizkieten aurtengo protagonistei, eta bidenabarkoan txapelketa ezberdinetako sariak eta trofeoak banatu zituen San Fermin Elkarteak.

Willis Drumond, Aske, Goienetxe Anaiak, Ze esatek eta Tirri & Tery.

Zerbitzuen Elkarteko Tonbola

Azken bi urtetako arrakasta ikusita, aurten ere tonbola antolatu du Lesakako Zerbitzuen Elkarteak, Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Elkarteko dendetan egindako erosketen truke banatutako txartele-

kin sariak eskuratu ahal izateko, azaroaren 29an aterako dituzte zenbakiak, 19:00etatik aitzinera plazan. Pintxoia eta edaria ere banatuko dute, euro eta erdiren truke, giroa goxatzeko.

Zerbitzuen Elkarteak 13.000 boleto prestatu ditu eta gisa guzietako sariak banatuko dituzte. Hori bai, saria jaso nahi duenak plazan egon beharko du larunbat arratsean.

Santa Zezilia

Santa Zezilia eguneko kontzertua azaroaren 22an, 19:00etan eskainiko dute herriko musikari taldeek Harriondoa. Bezperean, Musika Eskolakoek eskainiko dute kontzertua, leku berean 18:00etan. Abendurako pailazo ezagun batzuekin emaldi berezia ere prestatzen ari da Musika Banda. Hurrengoan, berri gehiago.

FLASH

Beti Gazteren lehiaketako argazkiak ikusgai

Beti Gazte Elkarteak antolatutako argazki lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai daude azaroaren 9tik 30era Harriondoa Kultur Etxeko komentuan. Asteleheneetik larunbatera 17:00etatik 19:00etara eta igandetan 11:30etik 13:30era egonen dira ikusgai.

'Arrakala' dokumentala

Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela eta, heteroarauei buruzko *Arrakala* dokumentala ikusteko aukera izanen da azaroaren 29an, 17:00etan Harriondoa.

Ferietako hitzordu gehiago

Ferietako egitarau zehatza aitzineko orrietan baldin baduzue ere, aipatzekoa da San Fermin Elkarteko jubilatuek ere afaria eginen dutela azaroaren 27an, 21:00etan egoitzan. Txartelak hilaren 20ra bitarte daude salgai, 20 eurotan. Bertze aldetik, Kattu ostatua feria egunean zabalik egonen da. Tragoska edo pintxo bat jateko aukera izanen da, baita ferietako menua dastatzeko ere. Ferietan euskara eta euskaltegiaren aldeko topagunea bilakatu nahi du Kattu ostatuak.

10 SARRERA ZOKKETATUKO DITUGU urtean zehar

IGANTZI NAFARROA
Tel +34 948 928 922
www.irrisarriand.es

GIZARTEA → AZAROAREN 2AN

Etxalarko naturzaleak Usategietara atera dira

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere hegazti mota ugari ikusi zituzten

Irune & Itsaso-TTIPI-TTAPA

Ligue pour les Oiseaux (LPO) elkarteak bertan jarritako hegaztien migrazioaren behatokia bisitatzera etorri ziren. LPOko kideak herritik pasatzen diren hegaztien berri eman zuen. Espezie arruntenak azaldu zizkien, nondik nora mugitzen diren, zein garaietan, azken urteetan populazioetan ikusi dituzten aldaketak... Gurean hain ezaguna den usoaz ere mintzatu zen, ezezagunagoak diren arrano arrantzaleaz, sugezaleaz eta arrano txikiak, kopuru handietan pasatzen diren miru beltz eta sapel-tsa liztorjaleetaz, amiamoko txuri eta beltzetaz, eta baita azaroko egun hauetan oraindik ikusi eta aditu ditzakegun lertxunetaz ere. Eguraldiak sobera lagundu ez bazuen ere, sartxipotak, txontak, hegatzabalak, miru gorriak, sapelatsak eta bilgarro taldeak ikusteko aukera izan zuten.

Giltzarri abesbatza

Azaroaren 8an, meza ondotik, Giltzarri abesbatzak bere saioa eskaini zuen elizan.

Etxeko telebistak bersintonizatu behar dira

Azaroaren 13tik aitzinera, telebista Akoka aldeko antenatik ikusten duten etxe guztietan bersintonizatu behar harko dituzte telebistak. Herriko Etxetik jakitera eman dutenez, hori egin ondotik, EITBko kate eta seinale guztiak digitalean ikusiko dira herrian.

Herriko pilotariak

Hasia da Bortzirietako eskuz binakako 14. pilota txapelketa. Etxalarkoek ere parte hartuko dute. Alebinetan (10-11 urte); Aiert Irigoien eta Unai Arburua, Koldo Bizente eta Markel Etxarte, Joseba Telletxea eta Asier Martin, Niko Garcia eta Unai Lluçia (azken hau beratarra da) arituko dira eta infantil mailan (12-13 urte); Raphaela Gomes eta Xabier Telletxea.



ARGAZKIA: AINHOA BERRUETA

Eguraldiak ez zuen lagundu, baina hegazti ugari ikusi zituzten.



ARGAZKIAK: MARI LUZ ARIZTEGI

Usoaren Eguna

Urriaren 26ean Usoaren eguna ospatu zuten Larraburuan. 25 lagun bildu ziren eta giro ederrean pasa zuten bai bazkarian eta baita bazkalondoan ere.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com

ZUBIONDO
Jatetxea

agardotegia jatetxea

Alasta karrika
TEL: 948 63 10 27 BERA NAFARROA

F. LANCHAS

Akudialorea eta berriztatzailea
Parket eta parket flotatzaila
jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

ARANTZA

KULTURA → KULTUR EGUNAK

Tuanekobordako gazta eta Oskozeneko aharia Baserritarren Eguneko sarituak

Jendetza bildu da 19. edizioan

Nerea ALTZURI

Azaro hasieran, egun frexko eta bustiak izan badira ere, azaroaren lehenak udako eguna zirudien. XIX. Baserritarren Eguna aro ederrarekin izan genuen. Goiz guzian, herritar nahiz bisitari aunitzek ohiko bisita egin zuten herrira. Frontoian postuak ikusiz itzulixka egin zitekeen eta Guraso Elkarteak paratutako ostuan tragoxka eta pintxo hartu; plazan aziendak, Pelle-Tiki Haur Eskolaren aldeko bigarren esku jostailuak...

Gazta eta ahari lehiaketak ere egin ziren. Hamar gazta aurkeztu zituzten eta lehen saria Tuanekobordako Marixol Almandozek jaso zuen; bigarrena Serorenbordako Margarita Madariagak; eta hirugarrena azken honen aitak, Simonenbordako Xalbadorek hartu zuen. Bertze gaztak Albiz, Martinekoborda, Oskozenea, Senberro, Dani Lukanbio, Arrunekoborda eta Aientsako Gaxtelenebordakoak izan ziren.

Ahari lehiaketan, bortz bururen artean, lehen saria Oskozeneko Leontxio Oskozen aziendak jaso zuen eta bigarrena Dani Lukanbiok eraman zuen. Xeberino Indakoetxeak eta Simonetik ere ahari-

ak ekarri zituzten. Bazkal aitzinean zozketatutako zarea eta Marirenbordako oilarra Xabi Iturriak eraman zituen.

EKITALDI GEHIAGO

Kultur Egunen barne, urriaren 31n haurrentzat ipuinak eta helduentzat dokumentala izan ziren eta azaroaren 2an mus eta partxis txapelketak. Musean zortzi bikote aritu ziren eta Imanol Mitxelena eta Jon Jorajuriak irabazi zuten Luis Andueza eta Patxi Iturriaren kontra finalean. Partxisean hamaika bikote aritu ziren eta Edurne Gamio eta Rosa Mari Iribarren izan ziren garaile, finalean Aimar Zubieta eta Imanol Igartuari irabazita.

Tuanekobordako gazta 2. Beran

Berako Lurraren Egunean egin zen gazta lehia-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Baserritarren Eguneko irudiak eta partxis eta mus txapelketetako finalistak.

ketan, Tuanekobordako Marixolek bigarren saria eskuratu zuen. Aipatu, Beran bizi arren, bere ahizpa Sokorroren gazta izan zela hoberena, lehen saria lortuz. Zorionak!

Herri tiki infernu handi

Urriaren 30eko ilunabarrean jende mordoxka bildu zen frontoian ETB1-eko *Herri tiki Infernu handi* saioaren grabazioan.

Herritarrekin eginiko elkarriketak erakutsiz, publikoaren txalo eta irriak baituz, ilbeltzetik aitzinera emanen duten saioa grabatu zuten. Ederki pasatu zuten bildutakoek.



ARGAZKIA: ZALDUA

Urrezko Ezteiak

1964ko urriaren 29an ezkondu ziren Juan Bereau eta M^a Asuncion Mazizior Hondarribiko Guadalupe ermitan. Hondarribian bizitu ziren hasierako urteetan eta lehenbiziko bi semeak ere han jaio ziren. 1967an Arantzara etorri ziren bizitzera eta gaur egun Motxenean bizi dira. Familia ederra hazi dute, sei seme-alaba eta hamabi biloba baitituzte. Zorionak!

aterpe
aitzinean jantzeko eremua
T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

Gure Haragia
Nuestra Carne

IMANOL ITURRIA
ZURGINA
Enpresa eta partikular
T. 661 577 137
E-posta: imaiturria@hotmail.com
Eskatu aurrekontua konpromisoerik gabe

José I. Gonzalez Enguita
bortzak
barrukoak eta latsadak
tel. 666 235 466

KIROLA → ABENDUAREN 7AN

‘Euskaraz bizi nahi dut’ lasterketa herrian eginen da aurten

Abenduko kultur egunen baitan antolatuko dute

TTIPI-TTAPA

Aitzineko urteetan Beran eta Lesakan egin ondotik, aurten Igantzi izanen da Euskaraz Bizi Nahi Dut lasterketa. Euskara Batzordea ari da antolatzen, eta lasterketa abenduko kultur egunetan eginen da, hain zuzen ere abenduaren 7an, igande goizez. Batzordea egitaraua lotzen ari da, baina eskualdean lasterka ari diren guztiek jakin dezaten, haur, gaztetxo nahiz helduentzako ibilbideak prestatzen ari dira. Lasterka abiatu baino lehen, ekitalditxo bat izanen da plazan, eta bukaeran ere bai, baita

parte hartzaile guztientzako zozketak, jan-edanak, kamiseten salmenta....

Ajoarriero txapelketa ere

Abenduko kultur egunetan ajoarriero txapelketa ere izanen da, abenduaren 8an, astelehen goizez. Igantziko Biltoki ari da hori prestatzen, eta jendea parte hartzera animatu nahi du. 12:00etan hasiko da lehiaketa, eta 13:00etarako ajoarrieroak prest egon beharko du. Bi modutara hartzen ahal da parte. Batetik, bikoteka, ajoarrieroa lehiaketarako prestatuz. Horretarako Biltokik parte hartzaile guztiei bakailua emanen die, eta 10 euro behar dituzten bertze gaiak erosteko. Parte hartzaileek ajoarrieroa prestatzeko behar dituzten tresna guz-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean Lesakan egin zen lasterketan herritarrek ere parte hartu zuten.

tiak eraman beharko dituzte; mahaiak Biltokik paratuko ditu. Parte hartu nahi dutenek abenduaren 1a baino lehen izen eman beharko dute.

Bertze aldetik, gainerako herritarrek ere parte hartzen ahaliko dute, ajoarrierorik hobere-na zein den aukeratuz. Horretarako Biltokik nahi duen guztiari ajoarrieroak probatzeko aukera emanen dio, eta txartelean modu anonimoan paratuko dute zein den ajoarrierorik hobere-na. Horrela erabakiko da zein izan den irabazlea.

Bukaeran sariak izanen dira ajoarriero lehiaketako irabazleentzat, baita zozketa bat ere botoa emanez parte hartu duten herritarrentzat.

AZAROAREN 17AN

Emozio Hezkuntza proiektua azaltzeko hitzaldia eskolan

TTIPI-TTAPA

Emozio Hezkuntza proiektua ikasle eta familiekin lantzen ari dira 2010 urtetik honat eskolan. Hasi zenetik urteak igaro direnez eta guraso berriak direla ikusita, aurten proiektua adierazteko eta zalantzak argitzeko hitzaldi interesgarria antolatu dute eskolan. Azaroaren 17an, astelehenean 16:15ean izanen da eta proiektu honetan parte hartzen duten profesionalak emanen dute: Felix Ligos, Marina Pintos, Raul Garzia eta eskolako irakaslegoak. Ordu eta erdiko iraupena izanen du eta doako haurtzaindegi zerbitzua eskainiko da.



zalain
JATEBESA - RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
www.zalainjatebesa.com

zalain

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

JAKINE-GOKOTEKIK

948 630 786
Altzale, 21 - BERA

sarobe
gostetegi elandegia

pl. de etxebera 25 bajo 31700 berain (navarra) 1948 63 00 99 www.sarobe.net

MARTIKO

Martiko
Pol. Zalain, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Hasturuetan edukiak eta erosiak

DENDA ORDUTEGIA:
asteleheneetik
ortziralera
08:00etatik
17:00etara

SUNBILLA

GIZARTEA → URRIAREN 26AN IZAN ZEN LEHENA

Haurrendako mezak hasi dira hilabeteko azken igandean

Maidar PETRIRENA

Haurrendako lehen-dabiziko meza ospatu zen urriaren 26an elizan. Haur eta guraso andana egon ziren eta polita izan omen zen meza. Hilabeteko azken igandean izanen da haur meza Sunbillan. Honekin lotuta, aipatuko dugu azaroaren 1ean goizeko 10etan izan zela meza eta azaroaren 2an berriz hilerrian goizeko

9:30ean bertan hilobiratuta dauden guztien omenez.

Herriko txoko eta pertsonaiak telebistan

Urriaren 29 eta 30ean herriko leku eta pertsonai esanguratsuenen irudi eta iritziak bilduz Navarra Televisionen *Tiramillas* programarako grabaketak egiten aritu



ARGAZKIA: BIDAD IBARRA

Urederrako iturburura joan da Ulibeltzak mendi taldea

Ulibeltzak mendi Taldeko kideak urriaren 26an Urederrako iturburura joan ziren, 10 kilometroko ibilbidea polita eta ederra osatu zuten. Eguraldia lagun, ibilbide paregabea egin zuten.

ziren. Grabaketa hau azaroaren 13an, ortzegunetan 22:00etan emanen dute.

Mendi Abesbatza

Zenbait herritar partaide diren Doneztebe-

Ba al zenekien

Iker Marizkurrena herriko arraunlaria, Ibar-dingo Mendiko Sagardotegian ospatutako Udazken kanta afarian omendua izan dela


ko Mendi Abesbatzak du azaroaren 22an, arrakontzertu bat eskainiko tseko 8etan elizan.



ARGAZKIA: ALIZIA OLAIZOLA

54 kilo baino gehiagoko kalabaza Behobia baserrian...

Baratzeko uzten emaitza ondorengo argazkian ikusi daiteke. Kalabaza eder hauek Behobia baserrian bildutakoak dira urriko hilabetean. Haundienak hain zuzen ere 54,300 kilogramoko pisua du. Ederra kalabaza. Argazkian, Pol Irazoki Pablo semearekin ageri da.



ARGAZKIA: KOTTERRA SARRATEA

...eta onddo ederra mendian

Mendian ere, nahiz eta eguraldiak ez duen lagun- du onddoak ateratzeko, baten batzuk zerbait hartu dute. Horren erakusgarri Felix Sarrateak bildu duen onddo ederra. Bere iloba Ander poz-pozik dago onddoa eskuetan duela.

2
AFARI BIKOITZ
ZOKETATUKO
DITUGU
urtean zehar

POSADA OITZ

Nagusia 1 OITZ
T. 948 451 951 - 948 450168
www.posadaoitz.com

OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 14AN

San Martin ondoko ortzirala egun seinalatua izanen da

Goizean
aziendak eta
arratsaldean
herri kirol saioa
ikusgai

Marga ERDOZAIN

Feriak izanen dira azaroaren 14an eta Maierrekako biztanle guzientzako egun berezia. Baserritarra, etxeko andre, gazte, ume... baikoitzak egun hori bere erara biziko du. Goiz goizetik, batez ere baserritarrak Merkatuko Plazara hurbilduko dira. Bazkaldu baino lehen, umeak, emakumeak, gizasemeak, gazteak... postuz postu ibiliko dira maindireak, zapatak, galtzerdiak, estalkiak begiratzuz. Hori bai, eliza ataritik pasa behar da Sahararen aldeko zozketan sos batzuzkuzteko, talo goxo bat ja-

teko edo institutuko ikasleei pintxo bat erosteko. Egun osoan, herrian barna umeak eta gaztetxoak Errekako saskirako boleok saltzen ibiliko dira eta hori ere derrigorrezkoa da erostea, urtero tokatzen baita. Eguerdi aldera, aperitiboa hartuta bazkaltzeko tenorea iristenan gauza desberdinak dastatu ditzakegu; ferietako menua bai goxua: garbantzu azarerekin, usoa edo antzekoak. Berdin da non jan: jatetxean, elkarteetan, senidearen etxean... baina ferietako otordu sakratua da.

Arratsaldean, berriz, herri kirola ikusgai, ferietan ohikoa dena. Aurtentzen Nafarroako bigarren Maiako Aizkora Txapelketako finala: Mieltxo Mindegia, Asier Pellejero, Iker Vicente, Aitor Senosiain eta Goizeder



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aziendak eta karrikako giro bikaina izanen da ortzirelean.

Belza ariko dira lehiatzen. Leitzako Inaxio Perurenak erakustaldia eskainiko du segidan. Ongi bazkaldu ondoren batzuzkuz nahiago dute dirua gastatzen jarraitu eta horrela segi ilundu arte. Etxeratzeke tenorean poltsetan ez dira falta baratxuriak, turronak, maindireak, galtzerdiak... Gaua ailegatzekin batera, eta feriantek biltzen hasten direnean, gazteak gaueko parrandarako presatuko dira.

Santi San Miguel bigarren Lizuniagan

Urriaren 25an Beran ospatu zen XXXIV. Lizuniagako Igoeran San-

Ba al zenekien

Kazakhstango Dennis Urubko mendizale ezaguna, Erreka elkarteak abenduaren 6rako antolatutako duen Mendiaren Egunekeo erakargarri nagusia izanen dela. Itzultzaile lanetan bertze gizon "handia" etorriko da. Horrela, Errekak ere gailurra lortuko du tamaina honetako kirolaria gurera ekartzean. Edo oraindik altuago joko al du Errekak? Nork daki! Ikusgarria benetan!

ti San Miguel, Errekako korrikalariak bigarren postua eskuratu zuen 17:56 minutuko denbora bikaina lortuz, Unai Santamaria irabazlearengandik 2 segundora. Horretaz gain, azpimarratu behar da Santik beteranoetan lehen dabiliko postua eskuratu zuela. Ikusgarria izanen da Santiren *bित्रina* txapelaz bete bai-

ta *arkona* ere, hamaika txorizo, gazta eta urdiazpiko irabazi dituen korrikalaria baita.

Azaroaren 23an zine emanaldia

Aurtengo laugarren zine emanaldian bi film ikusgai izanen dira azaroaren 23an: arratsaldeko 4:30ean *Sorgin bat etxean* eta arratsaldeko 6:30ean *Thirteen*.



AMEZTIA
HOSTALA BTT ZENTRUA OSTATUA JATETXEA

ASTEBURUKO MENUA 18€ HAURRENTZAKO MENUA 10€

ENTZALADAK PASTA FRESKOA SASOIKO BARAZKIAK PLATER KONBINATUAK

Ogitartekoak, sandwich-ak, hanburgesak...

T. 948 450 028 DONEZTEBE www.ameztia.com

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel. 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ITUREN

GIZARTEA → AUKERA ZABALA

Udazkenaren seinale hainbat ikastarotan hasiak dira herritarrak

Aspaldiko partez bertso eskola ere hasia da lanean eta 4-5 urteko haurrak hasi dira lehen aldiz dantzan lbintzarekin

Arkaitz MINDEGIA

Udazkeneko lehen egunetan uda giroan ginela irudi zuen, jendea kanpoko lanetan ederkari zen eguraldi ona probextuz. Orain euria eta hotza hasi denean, jendea kanpoan ibiltzen da ateruneak edo tarteak ateratzen den eguzkia probextuz. Etxeetako tximinietatik kea ateratzen hasia da, suaren garrak etxeak eta ipurdiak ederkari goxatzen dituen bitartean.

Dena den, barnean goxokian ikasteko eguraldi polita da. Aurreko aleetan ikastaro batzu-

en berri eman genuen, hala nola kenpo kai, joskintza, zumba, pandero eta trikitixa ikastaroak. Ikastaro hauek martxan daude eta azken egunetan bertso-laritz eta dantza ikastaroak ere hasiak dira.

BERTSOLARITZA

Duela urte batzuk herrian ez genuen bertso-laritzako ikastarorik izaten, baina berriki berri hasi dira martxan. Asteartetan arratsaldeko 4etatik 5etara, Estitxu Arozena bertsolari lesakarraren eskutik. Dagoeneko zortzi bat ikasle ari dira bertso-laritz mundu murgilduta gauza berriak ikasten. Duela urte batzuk ikastaro hauek parte hartu ondoren, herrian bertsolari haundiak ditugu, Iker eta Egoitz Gorosterrazu anaiak eta Alazne Untxalo. Anima zaitzete!!

DANTZA IKASTAROA

Urteak daramatza he-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Pulunpa eskolako lehen ateraldia Mendaurrera

Pulunpa eskolakoak lehen hiruhilabeteen jo eta su dabilta gisa guzietako ikasgaietan. Burubelarrari irakasleak erakusten eta ikasleak ikasten. Jadanik lehen ateraldia ere burutu dute. Ez ziren urrutira joan, baina urrian izan zen eguraldi bikaina probextuz herriko xoko polit bat bisitatu zuten. Mendaurreko mendia puntara igo ziren koxkorrenak eta enbalseetan eguna emanaz, bai umeek baita gaztetxoek ere ederki pasatu zuten. Bertzalde Pulunpa eskolan irakasle lanean ari den lera urrian ezkondu zen Mikelekin. Pulunpako irakasle, ikasle eta gurasoak Leitza izan ziren bikoteari sorpresa emateko asmoz, baita lortu ere! Joaldun haundi eta tikiak hurbildu ziren eta joare soinuak zabaldu zituzten Leitza kaleetan, beraingana hurbiltzea lortu zuten arte!!

rrian lanean lbintza Dantza taldeak. Adin desberdinetako neska-mutilak aritzen dira bertan ikasten eta gero han eta hemen erakusten dituzte urte osoan zehar ikasitakoak. Dantza saioak eskaini ahal izateko, hainbat eta hainbat hilabetez Izaskun, Nahia eta Aitziber irakasleak euskal dantza berriak eta koreografi-

ak ikasten aritu dira. Aurtengo ikastaroak hasiak dituzte dagoeneko. Beraz, nahi duenak dantza munduan sartu, arduradun edo irakasleekin harremanetan jarri beharko du. Betiko egun eta orduetan aritzen dira, Aurten, gainera, talde berri bat ere osatu dute, 4-5 urteko haurrak dantza ikasten hasiko baitira.

Bake epailea

Bake epaile kargua hutsik dago eta legeak agintzen duen moduan bente egin behar da. Horretarako ez da Zuzenbidean lizentziatua izan beharrik. Interesatuek beraien eskaerak aurkezten ahal dituzte udal erregistroan. Ez bada eskatzaile, udalbatzak aukeratuko du bake epailea.

ondo ta gure
Zapagurutzeko 3
31740 DONEZTEBE (Nafarroa)
Tel./Fax: 945 450 236
www.ondotapunto.com

GIZARTEA → ASTEAZKENETIK IGANDERA ZABALIK

Edorta Murua izango da errotazaina urte bukaera bitarte

Nafarroako Gobernuak subentzionatua zuen kontratua akitu eta orain udalaren kontu

Fermin ETXEKOLONEA

Maria Jesus Petriko-rena aritu da urte osoan errotan lanean, baina Nafarroako Gobernuak subentzionatutako kontratua bukatu zaio. Orain, urtea bukatu arte Edorta Murua ariko da, udalaren kontura. Astelehen eta asteartetan itxia egoten da eta asteazkenetik igan-

dera 11:00etatik 14:00etara egoten da zabalik.

Iruñea kantuz

Herritar saila bildu zen azaroaren 1ean Iruñeko Baluarte, Anjel Mariezkurrenak antolatutako *Iruñea kantuan* bigarren jaialdiaren aitxakian. Hamar joaldun joan ziren ikustera eta baita herriko beste 20 bat lagun ere. Saio politaren ondotik, Iruñeko sagardotegi batean afaldu zuten. Joaldunek harrera egin zieten ikusleei Baluarte atarian. Euskal Telebistan Gabon gauean botatzeko asmoa dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Baluarten aritu ondotik ederki bazkaldu zuten joaldunek eta zenbait herritarrek Iruñean.

Behobia-Donostia

Lau herritar ateratzekoak ziren igandean Behobia-Donostia lasterketan: Urko Loiarte, Jose Mari Indakoetxea, Mikel Indakoetxea eta Bingon Larrea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zaborrontzi batzuk laister kenduko dituzte.

Zaborrontziak erdira

Konpostajea gero eta gehiago zabalitzen ari da eta zaborrontziak erdira jausteko asmoa du Mankomunitateak.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

ESKAINTZA: Nordikoak
edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • martelak • kuxinak • toailak

MALERREKA

GIZARTEA → AZAROAREN 19AN

‘Compartimos?’ eta ‘Zergatik ez!’ tailerrak prest Donezteben

Euskara Zerbitzuak prestatu du lehena guraso erdaldunendako eta euskararen erabilera sozialaren inguruan hausnartzeko bigarrena

Marga ERDOZAIN

Malerrekako Euskara Zerbitzuak bi tailer antolatu ditu euskararen erabilera eta sentibiltasunaz bultzatzeko. Nafarroako Euskaltzaleen Topaguneak emanen ditu eta Katalunian Tallers per la llengua materiallean daude oinarrituta.

Bertan parte hartze izena eman behar da: Malerrekako Euskara Zerbitzuan (948 451 746) euskarazerbitzua@malerreka.info-cal.org

COMPARTIMOS?

Seme-alabak D erdudan matrikulatuta dituzten guraso erdaldunendako prestatua, 75-

90 minutuko iraupena du. Gaztelaniaz ematen da. Euskaraz aitzeko gaitasunik ez duten hiztun hauek euskararen normalizazioaren alde ere lan asko egin dute eta egin dezakete. Ohikoa da euskaraz ez dakiten gurasoek zenbait zalantza izatea, esaterako euskara jakin gabe, seme-alabari zertan laguntzen ahal dioten euskaldun oso izateko. Zalantza horiek argitzen lagunduko dugu tailer honen bitartez.

ZERGATIK EZ?

Bi orduko iraupena duen tailerra, euskaraz emanen da eta euskararen erabilera sozialaren inguruan hausnartzeko saioa da. Euskararen aldeko argudioak eskaini nahi ditugu, hausnartzeko arazoak eta gakoak jorratu. Tailerraren helburuak honako hauek dira: guk, hiztun gisa, uneoro aukeratzen ditugun hizkuntza jarrerak duten eraginaz hausnartzea; euskararekiko jarrera baikorrak sustatzea; euskararen errealitatearen eta etorkizunaren



UTZITAKO ARGAZKIAK

Gaztelarako klaseak antolatu ditu Mankomunitateak

Gaztelaniako klaseak antolatu ditu Malerrekako Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak. Bidelagun elkarteko hiru bolondresak ematen dizkiete astean bi egunez. Osotara hemezortzi ikasle ari dira. Gaztelania ikasteaz gain, gune hau bultzatu nahi du Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak kultura ezberdinak dituzten pertsona hauek harremanetan jartzeko, elkarren berri izateko eta hemengo kultura eta bizimodura egokitzeko. Beraz, klaseaz haratago elkarbizitza, kultura ezberdinen arteko trukaketa... ikasgai izanen dute bertan dauden portugaldarrek, sahararrek, errumaniarrek, marokoarrek, senegaldarrek eta brasildarrek.

ikuspegi baikorra azalaratzea. Landuko diren edukiak anitzak dira, esaterako, hizkuntza aniztasuna, euskarak duen legezko markoa, zer gertatzen da

hizkuntzak kontaktuan daudenean, euskarari buruzko zenbait datu, norberak euskararekin izan duen ibilbideaz hausnartzea, euskara erabiltzea zaila egiten

zaigun egoerak identifikatzea, eta etorkizunerako proposamenak.

Beraz, euskaraz jakin nahiz jakin ez, bi tailer interesgarri datorren asteazkenerako.

FERMIN ETXEGOIEN IDAZLEAREKIN ‘ZINEGOTZIA’ NOBELARI BURUZ

Literatur Solasaldia izanen dute Donamariko erabilera anitzeko gelan azaroaren 20an

M. ERDOZAIN

Malerrekako Literatur Solasaldien baitan, Fermin Etxegoien idazlea etorriko da azaroaren 20an, ortzegun arratsaldeko 7etan Donamariko erabilera anitzeko aretora, Zinegotziak bere azken eleberrari buruz solastera. Fikzio hutsa izan arren, *Zinegotzia* eleberririk neurria hartu nahi dio errealitateari, ahalik eta gehien gerturatuz aktualitate deitzen dugun horretara. Egun bakarrean gertatzen da kontakizuna, drama klasikoetan bezala, hiru ataletan banatua. 2013ko ekainaren 6an kokatu du eleberria idazleak, eta eskuineko zinegotzia berandu esnatu zen Euskal Herriaren independentzia bere eskutik etorri zen egunean.

LITERATUR SOLASALDI EMANKORRAK
Malerrekako Literatur Solasaldiak

ekimena 2013ko udaberrian sortu zen, bertako Euskara Batzordeak bultzatuta. Ekimen honetan liburu bati buruz ongi hornitutako mahai inguruko mintzaldia antolatzen da idazlearekin. Ekimen honek duen alde onenetako bat, idazlea bera ezagutzeko aukera izateaz gain, idazlearekin zenbait gairen inguruan sortzen den mintzatzeko aukera da; eraterako, zer gustatu zaion, edo zer ez, zein atal iruditu zaion berezia... azken finean, irakurleak idazleari egoki ikusten duena galdetzeko aukera izaten du. Bisitatu gaituzten egileen artean honako hauek izan dira: Ernesto Prat, Mikel Taberna, Peru Madalena, Luis Garde... Ekimen honetan parte hartzeko Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuarekin kontaktuan jarri behar da.

Ba al zenekien

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Egunean *Euskaraz Bizi Nahi Dute* lasterketa Donezteben burutuko dela. Batzorde bat egun hori prestatzen eta atontzen ari da, hurrengoan berri gehiago.

HEZKUNTZA → BERAKO UDALAK

Julio Caro Baroja ikasgeletan lantzeko liburuxka argitaratu dute



Mendeurreneko
lan taldeak eta
Lupe
Mendigutxiak
egina

TTIPI-TTAPA

Julio Caro Barojaren mendeurreneko ekitaldien baitan, bere figura eta lana ikasgeletan landu ahal izateko, liburuxka argitaratu du Beraiko Udalak. 40 orriko liburuxka da, eta Julio Caro Baroja ez ezik, Barojatarren familia ezagutzeko aukera ematen du. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat prestatu da materiala, eta ikasgeletan jasoko dute, zuzenean, lanerako koadernoan. Liburuxka hiru ataletan banatzen da. Lehendabizikoan, hainbat testu eta ariketen bidez, ikasleek pertsonaia misteriotsu bat deskubritu behar dute. Horretarako, Baroja familiaren inguruko informazio ugari jasoko dute. Bigarren atalean baserria landuko dute, hau izan baitzen Julio Caro Barojaren etnografia lanetako ardatz garrantzitsuenetarikoa. Hirugarren atal euskal egutegi tradizionala du ardatz, eta hori nola egituratu den, eta euskarazko izenak nondik datozen landuko dute. Lanaren egileak Lupe Mendigutxia eta Caro Barojaren mendeurreneko lantaldea izan dira.



Rural Kutxan kreditua ematen dizugu

**EZ BAITIOGU INOIZ
UTZI ZUGAN SINISTEARI**

Rural Kutxan kreditua ematen jarraitzen dugu partikularrei, autonomoei, ekintzaileei, enpresei eta erakundeei, beren proiektuak egiteko aukera izan dezaten. Inolako laguntzarik behar baduzu, edo gure kredituei buruzko argibideak nahi badituzu, zure zain egongo gara gure bulegoetan, beti bezala.



RURAL KUTXA

URROZ

GIZARTEA → MARIEZKURRENA ERAIKUNTZA ENPRESA

Ur araztegi berria egiten hasiak dira Xokoerrekan

Egunean 37 metro kubiko ur zikin bideratuko ditu

Joseba URROTZ

Ailegatu da ordua, aspaldi hasi ziren asmo haiek gauzatzekoa: gestioak udalaren aldetik, proiektua egitea... eta azkenik hasi dira lanak. Herriaren beheko aldean Xokoerreka inguruan, belagitxo bati zati bat kendu eta paretatzarrak egiten ari dira araztegi berria kokatzeko. Aitzineko ale batean adierazi bezala, egunean 37 metro kubiko ur zikin bideratuko ditu. Mariezkurrena Eraikuntzak enpresa da la-

nen egilea. Negu itxura hartu duen eguraldiak utziko al du tarterik lanak lehenbailehen akitzeko.

Haurrendako jostetalekua

Herriak zelai gutti ditu, leku libre aunitzirik ez dago, baina aurkitu da xoko bat haurrentzat jostaleku tiki bat egiteko, xalontxin eta txirris-tan ibiltzeko, zola xamurrekin eta koloretako hesiarekin.

Aitzinera akaso bertze "atrakzio"ren bat ere sartuko da. Argazkian hutsa dago, umeak eskolan baitziren, baina eguraldi onarekin harriera ona du, herrira ailegatu orduko han sartzen baitira!



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Xokoerreka inguruko belagi batean hasiak dira araztegi berria egiten.



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Jolasleku dotorea dute orain herriko haurrek.

AZAROAREN 5EAN ONARTUTAKO FORU DEKRETU BATEN BIDEZ

Belate ingurua Kontserbazio Eremu Berezi izendatu du Nafarroako Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Anue, Basaburua, Baztan, Bertizarana, Donamaria, Eratsun, Esteribar, Ezkurra, Beintza-Labaien, Lantz, Oiz, Saldias, Ultzama eta Urrozek hartzen duten Belate ingurua Kontserbazio Eremu Berezi izendatu du Nafarroako Gobernuak, azaroaren 5ean onartutako Foru Dekretu baten bitartez. 26.067 hektarea hartzen dituen eremurako kudeaketa plana ere onartu dute dekretu horretan, bertako landaredia eta fauna zaindu asmoz.

Planaren helburu nagusiei dagokienez, pagadi eta hariztien hedadura handitu nahi dute, baina gaur egungo gaztai-

nadi zaharrak ere mantenduz. Erreka eta erreka bazterren ingurumen kalitatea ere hobetu nahi dute eta zohikaztegien, putzuen eta enbaltseen kontserbazio egocera hobetzeko asmoa dute.

Faunari dagokionean, bertako karramarroen kolonizazioa bultzatuko da horretarako egokiak diren eremuetan eta mehatxupearan dauden intsektu espezieak biltzen dituzten eremuak identifikatu dira. Okil gibelnabar eta okil beltzarentzat ere kontserbazio neurriak hartu nahi dituzte eta saguzarren kasuan, umatzen eta elikatzen diren eremuen baldintzak hobetzeko asmoa dute.



Eraikuntza gehigarria 2014

TXARUTA, S.L

Iturgintza | kalefakzioa | Gasa

31750 - GAZTELU - DONAMARIA NAFARROA
T. 948 451 728 M. 659 770 015 M. 659 234 825
✉ txarutasl@yahoo.es

BIOMASA INSTALAZIOAK

KOMUNAK | SUKALDEAK
BEROKUNTZAKO INSTALAZIOAK
EGUZKI PLAKEN INSTALAZIOAK
AEROTERMIA
PELLET | EGURRA | GASOLIOA | GASA

ESAN ZER
NAHI DUZUN
ETA LAGUNDUKO
DIZUGU

Zure bainuontzia kendu eta dutxa-plaka jarriko dizugu, obrarekin edo gabe, nahi duzun bezala



ISOLATZEA AURREZTEA DA

Isolamendu termikoa eta akustikoa

AISLANat, Nafarroan ekoiztutako zelulosazko isolamendu bakarra

OBRARIK GABE

EKOLOGIKOA

EGUN BATEAN

Isolatu zure etxea zelulosarekin

948 33 00 15 . 627 41 22 69
www.aislantesaislanat.es

BIOKLIMA NATURE

AISLANat
AISLANTE DE CELULOSA



www.miguelena.es

Miguelena




Etxetresnak | Sukalde eta bainugelako altzariak | Pareta-armairuak

T. 948 450 925 | M. 677 525 292 • 677 525 324 | Amezti zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

SUKALDEA

Ttikia handituz...

Sukaldeko altzariak aukeratu eta antolatzeke orduan, eskura ditugun metro karratuei ahalik eta probetxu gehien ateratzea izaten dugu burutan. Espazio bisuala eta fisikoa ttikia den kasuetan zabaltzea. Neurri eta behar guztietara egokitzen diren altzariak daude merkatuan eta konbinaketa egokia osatzen jakitea da sekretua.



KOLORE ARGIAK HOBE

Altzari zuriak dira egokienak, edo bestela beige edota gris argiak; kolore biziak dituztenak, aldiz, ez dira komeni espazioa beteago geratzen delako. Distira dutenek, argia gehiago islatzen dute, beraz, horiek aukeratu gustuko badituzue. Sukaldeko gainazala aukeratzekoan ere geroz eta gehiago ikusten dira kolore argiak. Altzari zuri eta egur kolorekoen konbinaketa ere moda modan dago, ukitu goxoago emateko.

ARMAIRUETAN DAGO GAKOA

Armairu altuak jarri, sukaldearen altuera guztiari probetxua ateratzeko. Armairuetan kristal gardenak txertatzen baditugu ere, espazioa bisualki handitzea lortuko dugu. Horretaz gain, heldulekua gorderik duten armairuak aukeratzeko komeni da, edo bestela, helduleku ttikiak dituztenak. Armairuko atek irekitzeko espaziorik ez dagoen tokietan, pertsiana gisako atek jarrita arazoa konpon liteke.

IRTENBIDE BEREZIAK

Hoberena, hormetako bat hutsik uztea litzateke, baina toki faltan bazabiltza, apalak jartzea ere egokia da. Sakonera gutxi dutenak aukeratu, baina funtzionalak izan daitezela: espeziak gordetzeko ontziak, katiluak... bertan jartzeko aprobetxatuz. Sukaldeko sarreran ohiko atea jarri ordez ate korredera bat jartzen bada, atearen atzeko aldean hozkailua edo beste armairu bat jartzeko aukera dugu, inongo trabarik gabe.

OFFICE TTIKI BAT

Sukalde ttikia izateak ez du esan nahi office bat jartzeko tokirik ez duzunik. Erabili ondotik bildu litekeen apal bat eta taburete pare bat nahikoak dira gosalduek edota afari mokadu bat egiteko espazio bat eraikitzeko.

SUKALDERAKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTZOIAK

BORTZIRI
UNION ANAIK

Erakusketa: Berrau Etxea | LESAKA | Nafarroa
T. 948637266 | M. 607226891 | F. 948637511
bortzirialtzari@telefonica.net

sukalDeco
estudio cocina y baño

www.sukaldecoco.com IRURITA 948 580 666

ANZABAL
INMOBILIARIA

- Zurich Asegururik
- Auzoa, etxebizitza, latriku eta biltza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomena eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria
- Baserri, bodega, jarduera... salmenta eta alokairua
- Gestioa

Santiago, 15 • ELIZONDO • T/F: 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

BORTZIRIAK expert

KONPONKETAK ere egiten ditugu

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091
info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIETAN

BORTZIRIAK HILABETE HONETAKO
ESKAINTZA Bortziriak-en

SIEMENS WM14W690EE
ARROPA-GARBIGAILU BERRIA

Detergente eta leungariaren dosifikazio automatikoa
(100C arteko auzupena urlean)

IRABERIA (IRABERITAK)

A+++ klasekoa baino %30 kontsumo baxuagoa:
iQdrive motora 10 urteko bermarekin.

EDUKIA: 8kg

Zerbitzugararen gehieneko abiadura: 1400 birak minutuko.

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

LOKALEN EGOKITZEAK
ERAIKUNTZA BERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
BARRNE DISEINUA
AHOKULARITZA
DIRULAGUNTZEN BIDERATzea
TELATUA BERRITZEKO
SEGURTASUN ESTUDIOAK
KALIFIKAZIO ENERGETIKOAK



DOARQ
arkitektura bulegoa
maite & idola danbarrena olatxea
T 9 4 8 1 4 0 8 0 6

IRURITA



**Oiartzabal
arkitektoak**

Ipar karrika, 15
31780 BERA
T. 948 630 304 • 627 955 349

Delineazio lanak 2D eta 3D Planoak
Proiektuak Logoak **Diseinu Grafikoa**
Infoarkitektura Tzarleteak **Kontratuak**
Empresen Irudia **Web guneak**

**mm
studio**

Azkaine 6, Lesaka | Tfnoa: 651 776 998
mikel@mmstudio.info | www.mmstudio.info




**CONSTRUCCIONES
A. BENGOTXEA**

- Etxebizitzak egin
- Zahar-berritze lanak
- Saneamentuak
- Obra publikoak
- Zeramika denda

URDAZUBI
Tel. 948 599 166 www.carrelagesbengotxea.com



**HORMIGOI ETA ZUREZKO EGITURA
DUTEN ETXEBIZITZEN PROIEKTU ETA
ZUZENDARITZA TEKNIKOAK**

Fernando Orset Mauleon arkitektura
Frain Auzoa, 27 IGANTZI 615 700 007


ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA BULEGOA
Celia Lana Ranz, arkitektoa. COAVN 2827
Uharte Gotzaina 7 - 31880 LEITZA - T 645 008 478

proiektuak eta obra zuzendaritza
bizitzak, nabeak, urbanizazioak, zahar-berritzeak, lokalak, portalak, igogailuak,
legalizazioak...

aholkularitza urbanistikoa
kontsultak, dokumentu teknikoaren garapena eta tramitazioa (segregazioak,
zehetasun estudioak, udal arau aldaketak...)

profesionalendako eta partikularrendako aholkularitza teknikoa
aurrekontuak, zertifikazioak, obra neurketak, lur neurketak, segurtasuna...

I.T.E (eraikinen azterketa teknikoak)
ERAIKIN EDO BIZITZEN ZERTIFIKAZIO ENERGETIKOAK



linoplaza arkitektura
jaime umafia 36 - 31700 elizondo (nafarroa) **tel.** 948 58 18 02 **fax.** 948 58 14 12 **e-mail.** info@linoplaza.com **web.** www.linoplaza.com

URBEN ARKITEKTOAK
ETXEGINTZAN AHOAKULARITZA



ENERGIA ZIURTAGIRIAK
TASAZIO HOMOLOGATUAK
PERITAZIO INFORMEAK
ZAHARBERRITZEAK
ERAIKUNTZA
PROIEKTUEN GAUZATzea
ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK
(ITE)

TEL. **688 88 77 77** estudio@urbanarquitectos.com
URBEN SAJO 77 S.L. ARANTZA, AZKILLARREA 23. DONOSTIA, EASO KALEA 77,7. www.urbanarquitectos.com



ttipi-ttapa ko
BERRIAK
FACEBOOK eta TWITTERREN
EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

facebook

twitter



OSAGARRIAK ZINTZILIK

Sukaldatzeko tresnak, harrikoa egitekoak edo landare aromatiko batzuk... guztiak zintzilik jar ditzakegu horman jarritako barra batean. Guztia eskura eduki, armairuetan tokia irabazi eta sukaldeko gainazala libre izanen duzu horrela.

Kolorea gehitzeko hoberena osagarriak baliatzea da: aulki, mahai, erloju edota etxetresna koloredu-nak jartzea. Hanka-sartzerik ez egiteko, aukeratu kolore bat eta horren arabera koordinatu guztia.

ETXETRESNAK NEURRIRA

Ohikoak baino estuagoak diren etxetresnak topa ditzakegu merkatuan, sukalde ttiketara hobeki egokitzen direnak. Adibidez, 60 zentrimetrokoa izan beharrean 40 zentimetroko zabalera duten labe edota garbigailuak. Sukaldatzeko plaka aukeratzeko orduan ere, kontuan izan domino formatuko modulo bat jartzen bada, erdira ttikitzen dela horri eskainitako espazioa: soilik botoi bat sakatuta, paellera handienera egokitutako sua edota zartagin ttiki batek behar duena lortuko dugu. Horrela, 30 zentimetro gehiago izanen genituzke libre sukaldeko gainazalean.



EZKUTUAN HOBE

Hozkailua, ontzi-garbigailua... armairuen material berdinarekin panelatzen badira, disimulatuak geratuko dira eta sukaldeak itxura garbiagoa eta zabalagoa izanen du. Hozkailu edo garbigailua aldatzeko asmorik ez baduzu eta

etxean dituzunak ez badute panelatzeko aukerarik ematen, gomendagarria da etorkizunera begira, horientzako panelak ere eskatzea. Aldatzea tokatzen zaizunean, agian orduan poltsikoa zertxobait gehiago astindu beharko duzue baina emaitzak merezi du.

Estilo eklektikoaz hitz egiten dugunean, estilo eta garai desberdinetako altzari eta osagarrien nahasketaz ari gara. Dekorazioan adituak ez bazarete eta laguntzarik ez baduzue, ez da estilorik errazena, nahasketa guztiak ez direlako balekoak. Oreka oinarrizko kolore edo elementu egokiak aukeratzen badira lortzen da.

2. VINTAGE ETA RETROA

Zertxobait suabeago dator oraingoan, muturreraino ematen den zahar itxuratik aldenduta. Bizitza luzea duten altzari eta osagarriak izanen dira hauetako asko eta pertsonalitatea handia dutenak.

3. INDUSTRIAL ETA INDUSTRIAL VINTAGEA

Metalaren aldeko apostu garbia, burdina edo altzairua, zurarekin konbinatzen dira eta ukitu retro batzuk gehitzen zaizkie. Kolore argiko tapizeria erabiltzen bada, estilo industrialak duen berezko itxura gogorra leuntzea lortzen da.

4. UKITU ETNIKOA

Altzari etnikoak, eta Afrikako artisautza lokala gogora dakarten oihal estanpatuak ageri dira han eta hemen.

5. ESTILO ETNIKO ETA NATURALA

Material naturalenak eta teknika ekologikoenak erabiliz egindako altzariak dira. Lehengaiak berak ere garrantzia handia hartzen du. Material birziklatuak, bukaera leunak... Lurrari eta naturari lotutako materialak erabiltzen dira: zura, harria, metala... jatorrizko koloreak mantenduta.

Itzakard, 9
31740 DONEZTEBE
Tel. 948 450 409
www.esandcasa.es

ATE IREKIEN ASTEA
Azaroaren 17tik 22ra

Guzte altzari enakusketan
Elizagibela, 1 - 2. pisua (SUMAren gainean)
DONEZTEBE

10.00 - 13.00
17.00 - 21.00

-%60
Altzari desberdinetan

*Erlasaketa dabiltezagatik
Loggia eta egongela moderno eta rustikoaik
Gazteentzako logelak
Sofak
Lampak, kusidurak, ...

nikolin
30% + IVA
MURRU 600x180

Kanape abatiblenak
Koltxoak
Ohe artikulatuak, ...

EGUBERRIETAKO
gehigarrian

Irteerarik jarri nahi baduzu
delfu azaroaren 21a
baino lehen

T. 948 635 458 ttipi-ttapa

JAVIER ALZUGARAI S.L.U
Hondeaketa eta Garraio Lanak

Nabaz ezuzte | Guillen-borda | 31770 Lesaka | Nafarroa
T. 646 986 448 | F. 948 637 390
excavacionesjavieralzugarai@gmail.com



ZELAI-TXIKI
zurgindegia



Irteerarik ezuzte - Errota, 13 20740 ZESTOA - T. 943 14 75 32 - F. 943 14 78 68
www.zelaitxiki.com info@zelaitxiki.com

Apezteguia

ferreteria – burdindegia



2014-15eko Udazken eta neguko eskaintza berriak ikustera pasa zaitez

www.apezteguiaberria.com

Leitza Errepidea 33, Doneztebe | 948 450 994 | info@apezteguiaberria.com



Laura Apezteguia

T. 626 261 990

Inato Irazoki kalea 2
DONEZTEBE

laura@apezteguiaelizalde.com



Arkitektura...

Berritze eta errehabilitazioak

Anplazioak

Planta berriko proiektuak

Hiri diseinua



...Eta

Aholkularitza energetikoa

Ziurtatze energetikoa

Tasazioak

IEE, ITE, CEE, etab.

ATERALDIAK → HARA ETA HONA

Urteko azken bidaiak egiten ari da Arkupeak elkarte

Hilaren 21ean Argentinara abiatuko da talde bat

Fernando ETXEBERRIA

2014 urteko azken ateraldiak egiten ari da Arkupeak erretiratuen elkarte. Urriaren 30ean, 130 bazkide joan ziren Lizarra eta Lodosara. Azken honetan, Perón piper enpresara ohiko bisita egin zuten taldeka, denak batera hartzeko lekurik ez baitu. Zuzendariak, kofradia-ko jantziarekin, pikillo-piperra biltzeko, prestatutako potajea, usoa eta euskal pastel goxoak. Bazkalondoa, argazkia atera ondotik, etorkizunean ere mendi ateraldiekin segitzea adostu zuten. Zehazki, azaroaren 19an Larunera igoko dira Beratik, goizeko 9etan abiatuta eta gero Zalain jatetxean bazkalduko dute.

Beste aldetik, 30 bat bazkide Kanaria Handiko Playa del Inglesera joan ziren azaroaren 2an. Azaroaren 21ean, beste talde bat Argentinara abiatuko da, abenduaren 13an bueltatzeko eta azkenik, egun horretan berean, Zumarragako Feriara

joateko aukera izanen da.

Usoaren Festa

Duela bost urte baino gehiago hasitako ohi-turari eutsiz, Goiz Mendi taldeko kideak zirenak Otsondon bildu ziren urriaren 22an. Goizeko 10etan abiatu eta inguruan barna ibilaldia egin ondotik, Lezeta jatetxean bazkaldu zuten, Juanita sukaldariak prestatutako potajea, usoa eta euskal pastel goxoak. Bazkalondoa, argazkia atera ondotik, etorkizunean ere mendi ateraldiekin segitzea adostu zuten. Zehazki, azaroaren 19an Larunera igoko dira Beratik, goizeko 9etan abiatuta eta gero Zalain jatetxean bazkalduko dute.



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Bazkideak Lodosan, pikillo-piperra latetan nola sartzten duten ikasten.



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Goiz Mendi taldeko kideak Lezetako atarian, bapo bazkaldu ondotik.



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Ikastaroak aurrera

Antolatutako hamabi ikastaroetatik hamaika ematen ari dira Arkupeak elkarteko bazkideak. Bakar-bakarrik Jubiloteka gelditu da egin gabe eta heldu den urtean beharko du. Argazkian, ezkerrean argazkilaritza ikastarokoak eta eskuinean pintura ikastaroetakoak ageri dira.

EZKURRA

GIZARTEA → BETILAN ENPRESAREN ESKUTIK

Elizako teilatuaren moldaketa lanak bukatu dituzte

Itxura bikaina hartu du historia luzea bezain berezia duen eraikin erlijiosoak

Eliza estilo gotiko-errenazentistan egina da eta gurutze gotikoa, amabirjinaren XVI. mendeko taila eta 1672an egindako zilarrezko gurutzea dira aipagarrienak.

Aldare nagusia 1722an berreraiki zen, Ezkurrako jaunaren iriztaren kontra. Jauntxo hau herriko alkate ere izaten zen eta apeza izendatzeko eta hamarrenak kobratzeko eskubidea izaten zuen. Baina eliztarrek eliza hondatua zegoela ikusirik, eliz agintariengana jo eta hauek Ezkurrako jauna behartu zuten herritarren eskaera onartzera, baina orain-

TTIPI-TTAPA

Betilan eraikuntza enpresak bukatu ditu Elizako lanak. Kanpoko itxura polita gelditu da. Teilatuko goiko alderdia guztiz berri dute, egur zaharrak kendu eta teilak berriak jarrita. Beheko alderdian, sarrerakotan, han zeuden teilak ongi ezarri dituzte. Horrela itaizurrak desagertuko dira.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Elizak itxura bikaina hartu du teilatua berri ondotik.

dik mantentzen den letreroa jarriarazi zuen: «Este retablo se puso por devoción y a expensas de los vecinos de esta villa con consentimiento del patrono de la iglesia».

Eliz barnean, jauntxoaren familiak bere eserlekua izaten zuen eta familiko kideak bakarrik lurperatzen zituzten azpian. Baina behin, 1679an, "palazioa" falta zirela hila zen Martin Telletxea apaiza eta emakume batzuk banku azpian lurperatu



zuten. Baina Maria de Ezkurra jauntxoaren alaba (Luis Beaumontekin ezkondua zen, bi familien armariak oraindik ageri dira ezkerreko al-

darean) enteratu eta gorpua aterarazi eta hilerria eramanazi zuen. Emakumeek 20 libelako isuna ere ordaindu behar izan zuten.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Egun osoa kantari ematen duen oilarra

Bitxikeria bezala definituko lukete batzuk, harrigarririk bezala besteek. Kontua da herrian badela oilar berezi bat. Goizeko 6etan hasten da bere kontzertua eta gelditu gabe segitzen du bere kantu, oihiu eta algarekin 14:00ak arte. Ordu pare batez atsedena hartzen du eta gero iluntzera arte segitzen du alaitzen, batez ere bere inguruan dauden oiloak.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Hilerria eta Santu Guztien Eguna

Aspaldiko ohitura da egun honetan hilerrian daudenak bisitatzea. Aurretik dena ongi garbitu, apaindu eta lorez txukun betetzen dute. Batzuen ustez negargarria omen da ohitura hau baina...

OSPAKIZUNAK → GOIZUETAKO KULTUR TALDEAK ANTOLATUA

Azaro Kulturalak segida izanen du ondoko astetan

Herriko komunalari buruzko tesia aurkeztuko du ostiralean Lidia Montesinosek

TTIPI-TTAPA

Santu Guztien eguneko Ander Olaizolarekin bideo emanaldiarekin eta asteburu honetako Umore Ona elkartearen Egunarekin, Wukrori buruzko hitzaldiarekin eta Aresoko antzerki taldearekin hasitako Azaro Kulturalako ekitaldiek datozen asteburuetan ere segida izanen dute.

Azaroaren 14an, ostiralean 19:30ean Goizuetako komunalari buruzko *Iralikuk* tesiaren aurkezpena egingen du Lidia Montesinosek.

Azaroaren 15ean, larunbatean 17:00etan umeentzako jokoak izanen dira plazan eta Dabid Anaut-ek *Euskararen kate hautsiak* liburua aurkeztuko du 19:00etan Ganbaran.

Hilaren 21ean, ostiralean 19:30ean, *Euskal Herriko altxorretan barrena* Arkaitz Astiazararen dokumentala izanen da ikusgai Ganbaran eta 22an, larunbatean 18:00etan, sendabelarrei buruzko hitzaldia eskainiko du Maika Cerderak Goxalin.

Kultur Taldeak udalaren laguntzarekin antolatutako Kulturaldia hilaren 29ko feriarekin bukatuko da, baina bezperan, *Errimatuz garenera arri-matuz* ikuskizuna eskainiko du Oskar Estangak Ganbaran.

FLASH

Guraso Eskola

Xalto eskola eta guraso elkarteak eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak hiru hitzaldi antolatu dituzte ikasurte honetan. Azaroaren 18an izango da lehena: *Elikadura nahasteen prebentzioa eta hautemate azkarra*. Arantza Lorenzok (ACABE) emango du eskolako jangelan 17:30ean.

Txikiak futbitoan

Umore Ona futbito txikien taldea berriz martxan dago. Aurten guraso elkarteak hartu du ardura. 28 ume apuntatu dira eta hiru taldeetan banatuko dira, M^a Jose Etxeberria, Iñaki Loiarde eta Ibai Zugarramurdirekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aizkorbe-Apezetxea garaile Errotxapean

Aitor Aizkorbe eta Antton Apezetxea txapeladun suertatu ziren urriaren 31n Errotxapean. Infantil mailako txapela lortu zuten, finalean Oberenako Mata eta Cuairainek osatutako bikoteari 18-13 irabazi ondotik.

Ba al zenekien

Benaitik Kapero bitarteko herribidea auzolanean garbitzeko deia egin duela Udalak hilaren 22rako. 09:00etan gelditu dira Txino auzoan eta hamaiketako izanen da. Behin garbituta, lurra berdintzeko asmoa du Udalak.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Giro bikaina Jubilatuen Egunean

Urtero bezala, jubilatuen egunak omendu ditu Umore Ona elkarteak. Urriaren 25 eta 26an hainbat ekitaldi egin zituzten. Larunbatean jokaturako mus txapelketan, Miguel Sukuntza eta Eustakio Zubieta izan ziren irabazle eta Xanti Albistur eta Manolo Legarreta azpitxapeladun. Trukean, Milagros Apezetxea eta Monika Perurena izan ziren irabazleak eta iaz txapeladun izan ziren Maritxu Salaberria eta Juanita San Miguel bigarrenak. Igandean, 80 jubilatuen egunak izan ziren bazkaltzen, eta beraiek animatzen, Aitor Mendizabal eta Beñat Lizaso bertsoetan. Aurretik meza izan zuten eta pilota partidak ikusteko aukera.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bi basurde bota dituzte ehiztariak Burugorri inguruan

Pozik ageri da herriko basurde ehiztari kuadrila hau, urriaren 26an Burugorri inguruan ehizatutako bi basurdeekin. Ehiztari eta zakurren elkarlana nahitaezkoa izan bazen ere, bi basurdeak Attabordako Fermin Nabarte *Tximistak* bota zituen. Batek 85 kilo zituen eta besteak 95 kilo.

LEITZA

GIZARTEA → PARTE HARTZE EREDUA

Hari gara Leitza ehuntzen prozesua abiarazi du EH Bilduk

Herritarren ekarpenak bildu nahi dituzte

JM BARRIOLA

Urriaren 30ean, Leitzako EHBilduk 2015eko udal hauteskundeetarako plangintza aurkeztu zien herritarrei. Dagoneko, martxan da hauteskunde lan taldea eta urtarrila bitartean herri programa osatzeko partehartze prozesu bat ireki dute, *Hari gara Leitza ehuntzen* deitzen dena. Epealdi horretan ahalik eta herritar gehiengana iritsi nahi dute.

Horretarako, lantalde eta saio desberdinak an-

tolatuko dituzte, puntuz-puntu eta arloka herritarren ekarpenak jasotzeko. Ondoren, otsailean lehentasunak adostu eta herri programa eta zerrrenden bozketa egingo da.

Lehen aurkezpen honetan, Adolfo Araiz, Nafarroako Parlamenturako EHBilduko zerrendaburuaren azalpenak entzuteko aukera izan zuten bertaratutako 40 lagunek. Nafarroan erregimena aldatzeko gako hitz egin ahal izan zuten partaideek. Bestalde, eta alkateak legegintzaldiaren inguruan egingadako balorazioa entzun ondoren, talde txikitan banatu eta hainbat gairen inguruan eztabaida-



UTZITAKO ARGAZKIA

Udaletxean, urriaren 30ean, egin zuten udal hauteskundeetarako plangintzaren aurkezpena.

tzeko aukera izan zuten. Ondorengo luntxean giro informalagoan jarraitu zuen eztabaidak.

Lan saioak ez dira urriaren 30eko batzarrean amaitu, oraindik martxan arte badago zer egingo den. Beraz, EHBildutik deia luzatu dute herritarrek prozesuan parte hartzea.

Euskal dantzen ikastaroa

Leitzako dantza taldeak euskal dantzen ikastaroa antolatu du.

Herritar guztiei irekia dago ikastaroa eta jadanik 30 lagunek izena eman dute. Azaroaren 5ean hasi da eta maiatza bitartean, asteazkenero elkartuko dira eskoletako giatzera arte badago zer egingo den. Beraz, EHBildutik deia luzatu dute herritarrek prozesuan parte hartzea.

'Ondoko hilobiko tipoa' antzezlan

ALKE kultur taldeak antolatuta, azaroaren 16an iluntzeko 7:30ean


antzezlan ikusteko aukera izanen da Leitzako Zinean. Aitziber Garmendia eta Iker Galartza aktoreak dira komedia honetako protagonistak. Bi mundu ezberdin leku berean, kanposantuan elkarrekin, ikusiko dira taula gainean. Maila sozial eta kultural ezberdinak aurrez aurre. Irribarre leun bat, ordea, nahikoa izango da bi protagonisten arteko sua pizteko. Ezinezkoa litzatekeena posible egingo duen istorio zoragarri honetako sua.

IGANDERO, 17:00ETATIK 20:00ETARA

Oialdetxoko Gaztetzokoak ireki ditu ateak

JM BARRIOLA

Oialdetxoko, Leitzako Gaztetzokoa azaroaren 2an hasi eta martxoaren 27ra arte irekita egonen da. Igandero, arratsaldeko 5etatik 8ak arte izanen dute gaztetzokoen zerbitzuaz gozatzeko aukera. Gaztetzokoa 12-16 urteko gaztetzoei zuzendua dagoen zerbitzua da. Haien artean antolatzen dituzten ekintzak egiteko, jolasteko, pelikulak ikusteko edo elkarrekin egoteko txoko bat izatea da helburua. Aurten, aurreko urtean bezalaxe, Naroa eta Julen izango dira begiraleak. Lokala Guraso Elkarte Katolikoena da eta Gaztetzokoa Amazabal Institutuko Guraso Elkarteak kudeatzen du Gizearte Zerbitzuen laguntzarekin. Kostea 2.244 eurokoa da eta erabiltzaileen kuotekin eta beste hainbat diru iturriekin egiten zaio aurre kopuru horri, tartean zozketak ere egiten dituzte.



ARGAZKIAK: ENERITZ IRAOLA

VII. Mikologialdiak ohiko arrakasta izan zuten

Aurtengo mikologialdia urriko azken asteburuan ospatu zen. Leitzan onddo eta xixa zale ugari dago eta ALKE antolatuta lagun talde bat biltzen da urtero erakusketa eta mendi irteerak osatzeko. Helburua onddoen mundua ezagutaraztea da. 30 herritar inguru ibili ziren erakusketarako espezie ezberdinak biltzen. Ondoren sailkatu eta erakusketa egin zen igande eguerdian, guztira 110 espezie inguru jarri zituzten ikusgai. Erleta eskolan ere gaztetzokoen lanketa ederra egin zuten astean zehar eskulanak eginaz. Eta herriko ostatuak ere onddo eta xixa desberdinekin egindako pintxoak eskaini zituzten astean zehar.

GIZARTEA → ALDAKETAK GURASO ELKARTEAN

Guraso elkarteak zuzendari berria du

Mikel Baraibarrek beteko du kargua

Juana Mari SAIZAR

Ikasturte hasierarekin batera, guraso elkarteak ere martxan hasi eta duela gutxi egin dute ikasturteko lehenengo bilera. Bertan udaran antolatutako ekintzen balorazioa egin eta guraso elkarteak zuzendari berria ere aukeratu zuten. Aurreko ikasturtean zuzendari zen Mikel Baraibarrek postu hori betetzeko borondatea erakutsi zuen. Aho batez aurkeratua izan da eta aurrerantzean bera izango da guraso elkarteak zuzendaria. Idazkari lanetan Jaione Olazabalek eta diruzain gisara Igone Goikoitxeak segiko dute. Ikasturte honetan ere, kide guztiak elkartuta lanean segitzeko gogoz dira, antolatutako ekintzak ahalik eta hobekien ateratzeko.



ARGAZKIAK: UTZITAKO ARGAZKIA

Ioneren urtebetetzea ospatuz

Azken urteetako ohiturari eutsita, Ione Lozanoren urtebetetzea ospatzeko, bere familia eta herriko zein inguruko lagunak elkartu eta afaria egin zuten Pake Toki elkartearen. Horren aurretik argazkia atera zuten.

Santu guztien eguna

Santu guztien eguna pasa da eta ohiturak indarrean mantentzen dira. Ospakizuna ederri izan zen eta gero



UTZITAKO ARGAZKIA

Uso ehizarekin gustura herritarrek

Ehiza garaia ere badoa aurrera eta aurtengoan badirudi nahiko pozik gelditu direla uso ehizan aritu direnak. Hego haizeko egun asko eta uso pasa izugarriak ere izan dira, batzuk nahi baino altuago. Urriaren 19 eta 20an hartu zuten gozatu ederrena batzuk. Irudian ikusten denez, Bide Ondon nahikoa lan izango zuten gero guzti horiek prestatzen.

erresponsa egitera kanpo santura joan ziren eliz elkartekoak. Txukun garbituta zeukaten guztia udal langileek eta loreekin apainduta. Aspaldian ikusi gabeko la-

gunekin egoteko aukera ere izan zen, asko etorri ziren eta herrira bisitan. Eguraldi bikaina egin zuen eta jende asko ibili zen paseoan edota taberna inguruan.

OSASUN ETXEAK ETA GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAK

Guraso izan berri direnentzako gida argitaratu dute Leitzaldean

TTIPI-TTAPA

Ama-aita izan berri direnentzako *Jaio naiz. Zaindu nazazuze, zaindu zuen burua* Familia-entzako Gida argitaratu zen irailan. Leitza, Areso, Goizueta eta Arano osatzen duten Osasun Etxearen eta Gizarte Zerbitzuko Mankomunitatearen 0-3 Batordeko ideia izan zen. Gida, jaio berrien familiei argibideak emateko interesgarria izango zela pentsatu zen. Bertan, jaio berriaren eta familia osoaren behar fisiko, afektibo eta sozialak nola tratatu jasotzen direlako.

Gidan aita edo ama izatea-

ren alde ezberdinak jorratzen dira: amaren zainketa erditu ondoren, senitarteko guztien ardurak, jaio berriaren zainketa fisiko eta afektiboa, eta erreferentzizko zerbitzuak.

Era berean, Jose Luis Huarte Leitzako Liburutegiko arduradunak, haurrekin irakurtzeko prestatu duen liburuen zerrenda erantsita doa.

Guzti honekin, baliabide bat eskaini nahi izan da amek eta aitek jakin dezaten jaio berria eta familia osoa nola zaindu haurra zorientzua izango den inguruan, osasuntsu hazi eta he-



UTZITAKO ARGAZKIA

Gidaren azala.

ziko den jendartean. Gida, zerbitzu ezberdinetako kontsultetan eta pediatriako erizainak etxean jaio berriari egiten dion bisitan banatuko da.

Neguko lehen rastrilloa eginen dute Lekunberrin

Lekunberriko zenbait bizilagunek bigarren eskuko gauzak salgai jarriko dituen neguko rastrilloa antolatu dute lehen aldiz, abenduaren 6, 7 eta 8an. Ekitaldi honetan parte hartzeko azaroaren 23a baino lehen apuntatu behar da, (626 717360 edo 948 604582 telefonotan). Salgai jar daitezkeen gauzak, derrigorrez, bigarren eskukoak izan behar dira. Lekunberriko udalak mahaiak jarriko ditu eta edozein herrietako pertsonak parte har dezakete azokan, ez ordea komertzioek.

BAZTAN

BERTSOLARITZA → SEIGARREN EDIZIOA

Lau saio izanen ditu Mariano Izeta bertso sariketak

Azaroaren 14an hiru kanporaketa egingen dira eta 21ean finala jokatu da, Elizondon

TTIPI-TTAPA

Seigarren edizioa ailegatu da bi urtetik behin egiten den Mariano Izeta sariketa. Aurten indartuta dator bertso sariketa, inoizko parte hartzaile kopururik handiena izanen baitu, hemezortzi bertsolari hartuko dute parte. Horren ondorioz, lau saio izango ditu aurtengo edizioak, hiru kanporaketa eta, ohienez, Elizondon jokatu den finala.

Hiru kanporaketak, azaroaren 14an jokatu dira, Arbizu, Iruñea eta Arribe-Atallun. Arribe eta Iruñeko saioak 20:00etan jokatu dira eta Arbizukoa, berriaz, 21:30ean. Kanporaketak merendu batekin lagunduta egongo dira eta sarrera libre da.

Arribeko Satorzulo lokalean honako sei bertsolari kantatuko dute: Maddalen Lopez (Lesaka), Jokin Pinatxo (Bera), Iker Gorosterrazu (Ituren), Aitor Irastortza (Azpirotz), Alazne Untxalo (Ituren) eta Mikel Lasarte (Barañain).

Iruñeko Alegria Pe-

ñan hauek izango dira bertsolariak: Sarai Robles (Barañain), Patxi Castillo (Bera), Oier Amiano (Elizondo), Ainara Iregi (Barañain), Saioa Alkaiza (Antsoain) eta Manex Mailharin (Berriozar).

Azkenik, Arbizuko Argibide elkartearen sei bertsolari hauek ariko dira: Ioar Tainta (Lesaka), Joanes Ilarregi (Leizta), Unai Artieda (Etxarri-Aranatz), Amaia Elizagoien (Ornoz), Kotte Plaza (Iruñea) eta Sats Karasatorre (Etxarri-Aranatz).

Azaroaren 21ean jokatu da Elizondoko finala, kanporaketetatik sailkatu diren sei bertsolariekin. Fernando Anbustegik aurkeztuko du saioa. Finala mahai bueltan egingen da, afaletatik. 21:00etan izanen da afaletatik eta gero saioa. Prezioa 15 eurokoa da eta sarrerak aitzinetik erosten ahal dira Elizondoko Fantxiken eta Intza ostatuan edo Nafarroako Bertsozale Elkartearen (nafarroa@bertsozale.eus edo 948143747 telefonoan).

SEIGARREN EDIZIOA

Izeta sariketa 2004. urtean egin zen lehen aldiz; aurtengo seigarren edizioa jokatu da. Bost edizio hauetan, Nafarroako bertsolarien harrobia izan da eta hala izaten segituko du.



UTZITAKO ARGAZKIA

ELAren ikerketa indartzeko ikastetxeak ere busti dira

Batzar Nagusiak luzatutako erronkari erantzuten ari dira Baztango ikastetxeak eta ELA eritasunaren ikerketaren alde bustitzen ari dira. Goitian, Amaiurko eskolako ama eta maistrak ageri dira azaroaren 3an, ikasleek eta eskolako sukaldariak busti baino lehenxeago. Elizondoko Lanbide Eskolan (behegian) diru bilketa egin da eta azaroaren 3an egindako bustialdiarekin lekukoa Bertan merkataria elkartea, Oronozko suhiltzaile eta Baztango eskubaloi taldeari eman zaio.

Elizondoko Jon Barberena, Iruñeko Oier Lankuntza, Gartzaiango Jon Elizetxe, Irurritako Iñaki Aleman eta Aurizko Aimar Karrika izan dira Izeta sariketa orain arte irabazi dutenak.

Nafarroako Bertsozale Elkartearen antolatzailea, Baztango udalaren laguntza. Horrez gain, Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren babesa ere du ekimenak. Orain dela bost urte sortu zen Baztango Bertso Eskolak ere laguntza eman du antolaketa lanetan.

Sariketa honek Mariano Izeta zenaren izena hartzen du. Horrela, herri kultura eta bereziki bertsolariaren alde egindako lan handia eskertu nahi ditu Nafarroako Bertsozale Elkarteak.

Mariano Izeta 1915. urtean jaio zen, Elizondon, eta herri berean hil zen 2001. urtean. Lanbidez erloju-konponzailea zen, baina hortaz aparte lan itzela egin zuen herri kultura eta ondarea biltzen eta ezagutarazten. Egindako guztiagatik, Baztango

seme kuttuna izendatu zuten. Idazle, *Nafar Izkuntzako* kolaboratzaile, Euskaltzaindiko kide, Baztango hiztegien egile, mutil-dantzen sustatzaile... hamaika kontutan ibili zen Izeta.

Bere zaletasunik handienetakoa bertsolaritza izan zen. 1936. urtean egin zen lehen Nafarroako Bertsolari Txapelketan lagundu eta hortik aurrera hamaika bertso saio antolatu zituen. Nafarroako Bertsozale Elkartearen ohorezko presidentea zen.

GIZARTEA → URRIAREN 15EAN AURKEZTU DUTE

2015eko Nafarroa Oinez prestatzen hasia da Baztan Ikastola

‘Hamabortz, ama bat’ lelopean egingen da eta logoa ere aurkeztu dute

TTIPI-TTAPA

Baztan Ikastolak antolatuko du 2015eko Nafarroa Oinez eta ospakizun horren aurkezpena egin zuten azaroaren 6an Nafarroako Ikastolen Elkartearen egoitzan, Iruñean. 33 urteren buruan itzuliko da Eskuararen besta Baztanerat, 1982an historiari bigarren Oinez ere antolatu baitzuen Baztan Ikastolak.

Aurkezpenean, Zangozako ikastolari aurtengo arrakastarengatik zoriondu ondotik, Baztan Ikastolaren historiaren zertzelada batzuk eman zituen losune Ortega Baztan Ikastolako zuzendariak: «1970ean sortu zen, guraso talde baten ekimenez, eskuarazko irakaskuntza bermatzeko. Debekuen ondorioz, Baztanen, eta Elizondon batez ere, eskuaraz solasako zailtasun aunitz zegoen. Hainbat gurasok ausardiaz ekin zioten bideari. Garai hartako eskola instituzioak ez zi-

tuen herritarren sektore handi baten beharrik asetzen. Hezkuntza alternatiba gisa sortu zen gure herriaren hizkuntza eta kultura aintzat hartzen zituen egitasmoa, Baztan Ikastola».

Orain arteko ibilbidea ez dela xamurra izan ere aipatu zuen, «herriko barrakoian, frontoian, plazan eta ohiz kanpoko ordutegietan hartutako eskolak» gogoratuz. Bide horretan, aipatu behar da 1983an Baztango Udalak bere gain hartu zuela Baztan Ikastola, Udal ikastola bilakatu. 2015eko Nafarroa Oinez eguna, Baztan Ikastolaren ibilbidean mugari garrantzitsutzat jo zuen losune Ortega zuzendariak: «Gauzak aunitz aldatu dira, baina gogotsu gaudede, ilusioz, erronka handi bezain pollit honen aitzinean. Nafarroako 15 ikastolen izenean, harrotasunez, gure gain hartzen dugu Nafarroa Oinez 2015 besta antolatzekeo ardura».

Elena Zabaleta Baztan Ikastolako lehendakariak adierazi zuenez, «gaur egun, Baztan Ikastolak bi eraikin ditu, haur hezkuntzakoa eta lehen hezkuntzakoa. 1982ko Nafarroa Oinezari esker, haur hezkun-



UTZITAKO ARGAZKIA

2015eko Nafarroa Oinez aurkezpena. Erdian, Elena Zabaleta eta losune Ortega.



tzako eraikina berri ahal izan zen. Urte haueetan guztietan, konponketa edota moldaketa lan tikiak egin dira. Lan horiek Baztanen hain erroturik dagoen auzolanari esker garatu ahal izan ditugu».

Hala ere, kalitatezko hezkuntza eskaintzen jarraitzeko, instalazioak egokitzea ezinbertzekoa da, batez ere espazioari dagokionez. «Gure helburuak apalak dira –aipatu zuen Zabaleta–, garaiari egokituak: bertzeak bertze, jangela handitzeko beharra dugu, kanpoaldean aterpea duen toki behar dugu, ikasgela kopurua areagotu eta eraikinen isolamendua hobetu, ahalik eta era-

ginkortasun energetiko hoberena lortzeko». Hortaz, 2015eko Nafarroa Oinez Baztan Ikastolako azpiegiturak mantendu eta hobetzeko baliatuko dute, baina baita eskuarari bulkaldia emateko ere: «Helburu horrekin, lanean ari gara eta batzorde batzorde, elkarlanean. Lehenbiziko pausuak eman ditugu jada».

LOGOA ETA LELOA

Lehenbiziko urrats horien erakusle, 2015eko Nafarroa Oinezaren leloa eta logoa aurkeztu zituzten. Leloiari dagokionez, *Hamabortz, Ama bat* hautatu dute. «Hamabortz ikastola ari dira Nafarroan, elkarrekin lanean. Bertzalde,

hamabortz herrik osatzen dute Baztan Bailara. 2015. urteari ere erreferentzia egiten dio. Hamabortz, eta Ama... bat. Ama hizkuntza. Eskuara. Amak, eskuararen transmisioan gako izan dira. Ama guztien dako omenaldi xumea izan nahi du aipamenak». Leloa Fernando Anbustegik sortu du, Baztan Ikastolako lehenbiziko andereño izan zen Mari Carmen Goñiren semeak.

Ikurra, berriz, oin bat da. «Oinez, urratsez urrats egin dugu eta egingen ari gara gure hizkuntzaren bidea eta, hortaz, oina da gure ikurra. Hamabortz ikastolek, hamabortz herriek koloreztatutako oina da, eskuararen alde sendo aitzinet eginez», aurkezpenean erran zuten. Logoa, berriz, Josune Iturzaetak, Pello San Millanek eta Juan Angel Perotxenak egin dute, elkarlanean.

Bertzalde, azaroaren 7an, Oinez denda ere inauguratu zuten Elizondon. Porrotx pailazoa ere bertan izan zen. Santiagos karrikari dago, autobus geltoki parean. Asteburuetan zabalik egonen da eta Internet bidez ere izanen da materiala ikusi eta erosteko aukera.

BAZTAN

GIZARTEA → UDALAK NAFARROAKO GOBERNUARI

Uholdeen kalteak ordaintzeko kontu-saila esleitzeko eskea

Ahobatez hartu du erabakia udalak, gaur-gaurkoz ez baitu euro bakar bat ere jaso Iruña eta Madriletik

TTIPI-TTAPA

Balleko Etxeak ahobatez erabaki du Nafarroako Gobernuari eskatzea behar adinako kontu-sail bat esleitu dezala, azpiegitura publikoetan izan diren kalteen gastu guztiak ordaindu ahal izateko (2.292.821,40 euro). Urriaren 30ean egindako ohiko bilkuran hartu zuten erabakia.

Horretaz gain, Udalak Nafarroako Gobernuari eskatuko dio 2014ko uztaileko uholdeen eraginez egin beharreko emergentziatzeko lanen %70eko dirulaguntzen konpromisoa udal honi idatziz jakinaraztea, baita behar diren gestioak egin ditzala, Estatuak bere esku-menak bete ditzan hondamendi egoerako finantzaketari dagokionez, eta era berean, behar diren kontu-sailak esleitu ditzala ibaiaren ibilguan konponketa eta mantentze lanak egite-

ko. Udalaren ustez, ez baita aski izan konponketari esleitu zaion kontu-saila, eta ez dago mantentze lanak egiteko kontu-sailik.

0 EURO

Baztanen 2014ko uztailearen 4an gertatu ziren uholdeen ondotik, Udalak guztira 7.624.774,30 eurotan baloratu ditu kalteak. Dirutza horretatik, 3.285.616,20 euro Udalaren ardurapeko azpiegituretan eta eraikin publikoetan eragindako kalteei dagozkie. Kalte horien konponketa finantzatzeko aldera, Udalak finantza-laguntza eskatu dio bai Nafarroako Gobernuari bai Estatu Gobernuari eta, aldi berean, bere aseguruari eman dio parte, udal eraikinei dagokienez.

Hondamendia gertatu denetik lau hilabete baino gehiago pasatu eta gero, bakar-bakarrik baieztatu diote Udalari aseguru-partzuegoak 436.010,90 euro ordainduko dituela, kalteen balorazioa 842.260,55 euro izanik.

Udalak 307/2005 E-rege Dekretuan aurreikusitako laguntzak eskatu zizkion Barne Ministerioari, eta ezezkoa eman diote. Eta Nafarroako Gobernuari dagokionez, ahozko kon-



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Jokin Telleriak irabazi du Elizondoko Kasinoko margo lehiaketa

Jokin Telleria beasaindarrak irabazi zuen urriaren 26an Elizondoko Kasinoko antolatutako margo lehiaketa eta honenbertzez, 600 euroko lehen saria eraman zuen. Bigarren saria (400 euro), Eva Irazoki sunbildararentzat izan zen. Maila handiko lehiaketa izan zen eta margolariek Amaiur eta Azpilkuetako irudiekin egin behar izan zituzten beraien lanak. Bi lehenbizikoekin batera, finalistak izan ziren Javier Igoa lesakarra, Esteban Oskoz eta Manolo Sanz. Jose Mari Apezetxea, Ana Mari Marin, Xabier Soubelet, Tomas Sobrino eta Jesus Sanz margolari baztandarrek, Lekarozen eta Gartzainen mediku izan zen Salvador Martin-Cruz arte kritikoa eta Eduardo Zubikoa Kasinoko presidentek osatu zuten epaimahaia.



ARGAZKIAK: JUAN LAMEIRINHAS

Lau bildots izan ditu Lekarozko Arrontzeko ardiak

Lau bildots umatu ditu Lekarozko Arrontzeko hiru urteko ardi honek, hiru beltzak eta bat txuria. 500 ardi eta haragitako hamar behi zaintzen dituzte Bautista Elizondok eta Mari Jose Etxeberriak eta kontent daude. Bixkiak eta hirukiak lehenago ere izan badituzte ere, inseminazio artifizialaren bidez ernaldutako ardiaren lau bildotsak bizirik jaio diren lehen aldia da Arrontxen (astebete lehenago, lau bildotsetatik bi hilik erditu zituen bertze ardi batek). Lehenbiziko egunetan, doi-doi moldatu dira bildotsak amaren tititik, baina handitzen diren neurrian, bertze ardiaren batek eman beharko diela esnea uste du Mari Jose Etxeberriak. Oraindik ez dute Arrontzeko ardi guztiak umatu, baina nagusiek ez dute uste lau bildotseko umaldi gehiagorik izanen dutenik: «Hori berriz gertatzea miraria izanen da!» diote.

promiso bat bertzerik ez daukate emergentziako obren % 70 finantzatzeko; obra horiek

1.586.135,90 eurotan daude baloratuta. Gaur egun, Udalak 0 euro jasoko du Foru eta Estatu-

ko Administrazioetatik, azpiegitura publikoetan izaniko kalteen konponketa finantzatzeko.

GIZARTEA → 2014KO SUBENTZIOA

Gizarte jarduera eta nazioarteko kooperaziorako dirulaguntzak eman ditu Udalak

16.000 eta 40.552,53 euro banatuko ditu hurrenez hurren

TTIPI-TTAPA

2014 urtean Baztanen gizarte proiektuak eta jarduerak garatzen dituzten talde, kolektibo eta irabazi asmorik gabeko elkarteek eta nazioarteko kooperaziorako proiektu, programa eta planak diruz laguntzeko subentziok onartu ditu Baztaneko Udalak.

GIZARTE PROIEKTUETAN 16.000 EURO

Gizarte proiektuak eta jarduerak garatzen dituzten talde, kolektibo eta irabazi asmorik gabeko elkarteek 16.000 euroko dirulaguntza jasoko dute Udalletik, honela banatuak: Bidelagun elkarteak 3.025,42 euro, Xaulik 2.215,22 euro, Eguzkiloek 1.621,25 euro, Anasaps-Dizdirak 2.348,42 euro, Elikagai Bankuak 2.133,72 euro, Afinak 1.100 euro, Anfasek 2.348,42 euro eta Acodifnak 1.207,55 euro.



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Elizondoko Txokoak eta Uneak I liburua eta erakusketa

Foto Mena argazkilaritza estudioak *Elizondoko txokoak eta uneak I* liburuaren aurkezpena egin zuen urriaren 31n. 80 orrialde ditu eta mila ale eman dituzte argitara. 20 eurotan salgai daude Mena argazkidendan eta Elizondoko liburutegian. Pello Iriarte historialariaren testukin, lehen bilduma honetan Jaime Urrutia eta Braulio Iriarte karriketako eta presa inguruko irudiak biltzen dira, aitzinakoak eta berriagoak. Mena argazki-dendako laugarren belaunaldiko Felix Mena eta Itziar Mena anai-arrebek prestatu dute liburua eta etorkizunean, Elizondoko bertze txokoekin bigarren bilduma egiteko asmoa ere badute.

NAZIOARTEKO KOOPERAZIORAKO 40.552,53 EURO

Nazioarteko kooperaziorako proiektu, programa eta planak diruz laguntzeko, berriz, 40.552,53 euro bideratu ditu Udalak. Euskal Fondoan, 2.033,20na euro bideratu ditu Nika-

ragua eta Guatemala-ra, Saharaztani 2.661,77 euro, Frantziskotar Konbentualei 3.188,95 euro, Behar Bidasoari 3.188,95 euro, ANARASD-i 2.102,14 euro, ANAS-i 2.240,01 euro, Bigarren Familia egitasmoari 2.625,27 euro, Juan Bonal Fundazioari

3.030,79 euro; Vicente Ferrer Fundazioari 3.294,38 euro, Mugarik Gaberi 2.207,58 euro, Asamblea Cooperación por la Paz taldeari 2.540,10 euro, Delwende taldeari 2.750,98 euro, El Salvador Elkartasunari 2.154,89 euro eta Itakari 2.381,96 euro.

ferreteria
Quevedo

TXERRI HILTZEAN ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 234 · Faxa: 948 581 210

BAZTAN

GIZARTEA → AZAROAREN 25EAN NAZIOARTEKO EGUNA

Emakumeen kontrako indarkeria salatuz hainbat ekitaldi prest

Hezkidetza tailerrak eginen dira Elizondoko Lanbide Eskolan eta Lekarozko institutuan

nen da Elizondoko Lanbide Eskolan.

Azaroaren 25ean, astearte eguerdian elkarretaratzea eginen da Elizondoko plazan 17:30ean ipuin ez sexisten kontaketa saioa liburutegian. Zoila Berastegi Masriñelarenak *Oinarin Pinpirinen koloretako munduak* kontatuko du.

Azaroaren 30ean, Quemadura Teatro taldearen *Auskalo!* Antzerki Foruma eginen da Elizondoko Arizkunenean, 19:00etan.

Abenduaren 1ean hezkidetza tailerra eginen da Lekarozko institutuan.

Azaroaren 21etik abenduaren 5era *Jan-tzi betaurreko moreak!* Berdintasun txokoa izanen da liburutegian.

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Berdintasun batzordeak azaroaren 25ean ospatuko den Emakumeenganako Indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Egunerako zenbait ekitaldi antolatu ditu. Horietako batzuen antolaketa Baztango Udaleko Kultura batzordearen eta liburutegiaren laguntza izanen du.

Honela, azaroaren 24an, astelehenean, hezkidetza tailerra egi-

BALLEKO ETXEA WEBGUNE HELBIDE BERRIA

Interneteko .EUS domeinuko aitzindari izatea erabaki du Udalak

TTIPI-TTAPA

‘EUS’ Interneteko Domeinuaren Aitzindari izateko erabakia hartu zuen Udalak bertze 91 erakunderekin batera. Hori horrela www.baztan.eus da udalaren webgunearen helbide berria.

‘EUS’ Interneteko domeinua, Euskara eta Euskal Kulturaren Komunitatearen Interneteko lehen mailako domeinua da. Bere helburua euskara eta euskal kultura sustatzea da. Hortaz, tresna bat da, euskara beste hizkuntzen mailan kokatzen eta euskararen normalizazioan lagunduko duena eta euskararen herriari nazioarteko aitortza eskaintzen diona.



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Idi pare nagusitu zitzaion zaldiari ferietako apostuan

Inoiz baino jende gehiago bildu zen urriaren 24ean Elizondoko Udazkeneko Ferian. Jendea ez ezik,azienda aunitz ere plazaratu zen. Honela, behi aziendez gain, zaldi, behor, poni, ardi eta ahariak ere izan ziren. Aurtengoan, berrikuntza nagusia idi parearen eta zaldiaren arteko apostua izan zen. Jendetza bildu zen luzeko pilota plazan eta azkenean idiak nagusitu ziren. Jaime Urrutia karrikan eta plaza inguruan hainbat saltzaile izan zen, 250 bat postu paratu baitziren. Horri esker, 24.000 euroko diru-sarrerak izan ditu Elizondoko herriak. Geroz eta eskari gehiago dago postuak jartzeko eta horretaz, aurten Elizondoko Herriko Etxeak metroko 18,50 euro eskatu baldin badu, heldu den urtean metroko 20 euro kobratuko omen dute.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

3.000 kilo sagar jo dituzte Kirikoketa Egunean

Kirikoketa bestaren hamabosgarren edizioa ospatu zen azaroaren 1ean Arizkun, Jo ala Jo Kultur Taldeak antolatua. Gamioxarreko dolarean gerora sagardoa bihurtuko den sagarra jo zen, 3.000 kilo inguru, eta horren inguruan hainbat ospakizun egin ziren. Talde antolatzailekoekin batera, Otsagiko dantzariak, Gallartako Arrigorri taldeko erraldoiak, Berriozarko albokariak, fanfarre Mi Fa eta Baztango txistulariak aritu ziren eta 160 bat lagun bildu ziren bazkaltzera. Aipatzekoa da urriko hondar astean Gamioxarreko dolarean eta kanpoko aldean *Sagarra jo (Madonnak eskuaraz abesten duenean)* dokumentalaren irudi batzuk grabatu dituztela eta Kirikoketa Egunean ere Arizkunera hurbildu zirela Kalakan taldeko Thierry Biscary, Xan Errotabehere eta Jamixel Bereau, bertze irudi batzuk grabatzera. Iban Rusiñol nafarraren eta Nicolás Novion lapurtarraren gidaritzapean, sagardoa egiteko modu tradizionalaren inguruko gidoia dauka dokumentalak eta crowdfunding kanpaina baten bidez ordaintzen ari dira proiektua.

UDAL BATZARRA → URTXUME TALDEAK URRIAREN 31N

Aroztegi zaharrear burniaren interpretazio gunea egitea proposatu du

Solairu bat gehituko zaio eta turismo bulegoa, denda eta gela bat aurreikusten ditu proiektuak

Inigo IMAZ

Urriko udal batzarrean tentsio uneak bizitu ziren Azkar taldeko Santiago Villares alkatearen eta Urtxume taldeko bozeramailea den Andres Diharasarriren artean, gai ezberdinak tratatzera koan. Bertzeak bertze, urriaren 31ko bilkuran Aroztegi zaharrear Herriko Etxeak egin nahi dituen obren berri eman zuen alkateak. Aroztegiari solairu bat gehituko omen zaio. Proiektuan aurreikusten diren espazioak turismo bulegoa, denda eta baliointzeko gela dira, baina Azkar taldeko Juan Jose Suhas zinegotziak bertan haurtzaindegi bat jartzea proposatu zuen. Urtxumeko bozeramaileak eraikinaren jatorrizko egitura errespetatu, txukundu eta konpontzea eskatu zuen.

Andres Diharasarriren ustez, ez du zentzurik urtero Burniaren Eguna ospatzeak eta gero berezko burniolaren azarnak ez babesteak. Urtxumeko iritiz, bertan burnigintzarekin loturiko lanbideen interpretazio zentro bat sortzea proiektu interesga-

ria izan daiteke.

Aroztegiaren atzeko belaian zer egiteko asmoa zegoen ere galde-tu zuen oposizioak. Alkateak bertan martxan jarri den «animalaria, gauza polita dela uste dut» erantzun zuen, nahiz eta bigarren urtez udan publikoari itxita egon den espazio hori. Alkatearen hitzetan, oraingoan bai, baimen guztiak omen dituzte lanean aritzeko.

Aroztegian eginen diren obren proiektuaren esleipena zuzenean eginen da. Udalak hiru enpresari eskatuko die beren proposamenak aurkeztu ditzaten. Kostua 365.000 eurokoa izango dela aurreikusi dute udal arkitektoek, azken urteotan herrian egin den obra publiko

garrantzitsuena. Azkar taldeko lau zinegotziek baiezkua eman zioten proiektuari eta Urtxumeko biak abstenitu.

BERTZE ERABAKIAK

Guraso elkarteak urtero eskatu ohi duen 500 euroko diru laguntzari baiezkua eman zitzaion. Udal eraikinak, errota, klaustroa, aterpetxea eta museoa desinfektatuko dira. Zubiondoko mendero azpitik doan saneamendu tutua moldatuko dute, eta Montxotik Koxkara doan errekan konponketak egitea onartu zen. Herrian EITB hartzeko mozioa onartu zen. Ur horniketa modernizatzeko deposito berriak milloi bat eurotik gorako kostua izanen du eta Europako diru laguntzak bilatzen saiatuko da



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

Aroztegi zaharra moldatzeko proiektua lantzen ari dira.

Udala, Nafarroako Gobernuaren babesarekin.

Jubiloteka

Udazkenean Urdazubi eta Zugarramurdiko adinekoei zuzendutako zerbitzua martxan jarriko da. Goizeko zerbitzuaz Eman-Har (Amaia eta Axun) arduratuko dira, eta arratsaldekoa Nahia psikoterapeutak emango du.

Arratsaldetan aisialdi aktiboa bultzatzeko taldeko ekintzak eginen dira. Amaia eta Axunen zerbitzuak denboran iraupen luzea izanen du. Bertzeak ordea iraupen mugatua izanen du. Nahia psikoterapiaren eskutik azaroaren 14, 19, 21 eta 28an Zugarramurdiko museoan izanen dira saioak.

Alkerdiko bestak Armuan, Kantu Zaharrak Dantxarinear

Alkerdi auzoko bes-tetako bazkaria eta Dantxarinear Venta Peion egin ohi den Kantu Zaharren bazkaria egun berean izanen dira, azaroaren 29an. Lehenak Armua jatetxean antolatu duen bazkarian izena emateko epea irekia da, azaroaren 23a arte Armuan bertan. Frantziskok akordeoia-ekin alaituko du jatetxe-ko giroa bestak irauten duen artean.

2015EKO URTARRILAREN 10EAN

Fabaren Errege-erreginaren koroatzea Urdazubin eginen da

TTIPI-TTAPA

2015ko urtarrilaren 10ean Fabaren errege erreginaren koroatzearen zeremonia Urdazubin ospatuko dela jakinarazi dute Udalak eta Muthiko Alaiak elkarteak. Mende erdia da Iruñeko Muthiko Alaiak elkarteak Nafarroako erregeen tradizioko Fabako errege ibiltari festa ospa-

tzen dutela Nafarroako herrietan. 2015. urtean festaren 52. edizioa ospatuko da Urdazubin. Aitzinetik, abenduaren 13an, tradizioak dioen bezala, errege pasteletik baba ateratzen duen haurra izanen da irabazle eta segidan haur hori Fabaren errege edo erregina izendatuko dute.

Eguberrietan Erdi Aroko fes-

